

## Final bi jokatuko ditu Aldaik hilaren 16 eta 17an

Zapatuan, hilak 16, Amaia Aldai pelotariak Diario Vasco Torneoko finala jokatu dau Enara Gaminderen kontra Zumarragako frontoian eta hurrengo egunean, Lau eta Erdiko Master Laboral Kutxa Txapelketako finala, Goiuri Zabaletaren kontra Durangoko Ezkurdi pelotalekuan. Finalaurrekoak erraz irabazi ebazan dimoztarrak eta txapela janzteko helburuagaz urtengo da kantxara final bietan. Laboral Kutxa Txapelketako finala ETB1 en ikusi ahal izango da. **19. orrialdea**



## Ehun ekintzatik gora antolatu ditue Gabonetarako

**O**lentzero eta Mari Domingiri harrerea herri guztietan, Gabonetako umeen parkeak, urte amaierako lasterketak Aretza, Igorre eta Lemoan... Gabonetan bakarrik egiten diran jarduerak egongo dira Arratia, Ubide eta Zeberion, baina baita sasoiari lotutako ume eta nagusien aisialdia beteteko beste hainbat ekintza be. Izan be, kontzertuak, antzerkia, zinea, kirola eta jaiak ez dira faltauko gurean, abenduaren erdikaldetan hasi eta 2024ko urtailaren 5era bitartean. Lehenengoz egiten dan ekintzarik be badago, Dimako Udalak eta Txabila Herri Kirol Elkar-teak antolatutako Arrapaladan Dimako I. Lasto Jasotze Txapelketea, barbarako. **10. eta 12. orrialdeak**



## Espazio barriak eta hobekuntza ugari barriztautako Areatzako eskolan

Eskola osoa margotu da, lehio barriak, zoru bero-emoilea eta igongailua ipini dira; eta gimnasioa, sukaldea eta jangela be estrenau ditue eskolan. Gainera, Bolibar eraikina eta eskolako beste eraikina lotu, eta eskolarako sarrera barri bat egin da. Berdeguneak eta olgetako espazioak be sortu dira. Abenduaren 16a, 11:00etatik 13:00etara, herritarrek eskola barria ikusteko aukerea izango dabe. **6. orrialdea**



### ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Aditzik erabilienen hitanoko "txuleta" bananduko da etxeetan

BEGITUGAZ batera, aditzik ibiliak Arratiako hikan zelan diran jasoten dauan Karlos Aretxabaletak, Gotzon Aurrekoetxeak eta Rafa Ugaldek egindako txuletea bananduko da etxeetara hitanoaren erabilera bultzatzeko helburuagaz. Epe laburrean, Poltsikorako Hitanoa liburuxkea be aterako da. **7. orrialdea**



### ZEANURI

## Organu zaharbarritua berrinauguretako kontzertua

Zeanuriko Andra Mari parrokiako organuaren berrinaugurazino ofiziala egingo da abenduaren 27an, eguaztenean, arrastiko 19:00etan, Xabier Urtasun organu-jolearen goi-mailako kontzertuagaz. Organu hau 1910ean egin eban Bartzelonan Lope Alberdik. **5. orrialdea**



### ARRATIA, ZEBERIO

## Artean izango da Aire! dokumentalaren lehenengo pasea Arratian

Artean abenduaren 16an, 19:00etan, eleizan; hurrengo egunean, hilak 17, 18:00etan, Zeberioko udaletxean; Areatzan hilaren 28an, 19:00etan, udaltekko Aretu Nagusian eta Igorren, abenduaren 30ean, 20:00etan, Lasarte Aretuan ikusi ahal izango da Aire! dokumentala. Lemoan, urtailaren 11n egongo da ikusgai. Gentzane Martinez de Osabak zuzendutako dokumental honetan, Maurizia Aldeiturriaga pandero-jolearengan inspiratuko musika pieza bat sortzeako musika ikasle talde baten sormen prozesua kontetan da. **5. orrialdea**

# Literatura txokoa

## AYA DE YOPOUGON

Maite dot komikiak irakurtea, maite dodaz afrikar idazleak eta maite dot frantses irakurtea. Altxor ederra topau neban lurretan eroaten dodan frantses irakurketa klubarako. Baina lasai lagun, gazteleraz be topau leikez lehenengo zazpi bolumenak eta (zortzigarrena frantses argitaratu barri dabe).

Marguerite Abouet Costa de Marfilen jaio eta hazi zan, 18 urteaz Parisera joan zanenarte. Ondo daki beraz Yopougoneko egunerokotasuna zelangoa dan. Eta ederto azaltzen dau bere personaien bitartez bizitza hori. Clément Oubrieren marrazki ezin hobek idazle afrikarren lana biribiltzen dabe. Izan be irakurlea personaien artean sentitzen da le-

henengo liburutik atzenengorarte, Costa de Marfileko herri handi horretako auzoko kaleetan barrena. Harezko kaleak, buztinezko etxeak eta eguzkiaren argia egunero.

Familia desbardinak ezetuko doguz istorioetan aurrera egin ahala, eta familia baxotzeko etxeetan sartuko gara euren bizitzako gora beherak ondo ulertuteko: arazo ekonomikoak, ikasteko nahia batzuk, Europara alde egitekoa beste batzuentzat, familia-liskarrak, Parisen afrikar askok eta askok bizi daben errealidadea... Benetako bizitza, benetako kontuak.

Eta ez hori bakarrik, liburu baxotxaren hasieran personaien aurkezpen polit bat egiten deuskue eta, amaieran, idazleak Yopougongo lexikoa eta bertako ohiturak


aurkezten deuskuz: errezetak, erropea janzteko modua, herrialdeko egoera, emigrazioa... Eskertzekoa bezain beharrezkoa, mota honeetako liburuetan kaleko hizkuntza erabilten da-ta, eta nire moduan oindino ez bazara inoz egon Yopougongo herrian, eskertzekoa da jakitea ze janari mota dan liburu orrietan agertuten diran platerak. Gainera honek danak, amestera eroaten gaitu. Eta batek daki! Igual animauko zara hango errezetaren bat preparentan!

Baina ez dot guzurrik esango, gehien gozatu dodanagaz marrazkiak ondo aztertueagaz izan da. Zelango koloreak, arpegietako espresibidadea, gorputzaren posturak, etxeak, dendak, kaleak, Paris eta bertako zeru grisa... benetako argazkiak

balira moduan! Ikaragarria iruditu jata artista bi honek batera sortu daben lana.

Benetan, irakurle, nire moduan komikiak irakurtea gustuko badozu, eskatu zure konfiantzazko liburu-dendan lehenengo alea, ia gero gai zaren besteak irakurri barik geldituteko. Eta ez bazara komiki irakurlea, emoi zu aukera bat, seguru nago asko gozatuko dozula eta!

**Nerea Goioaga**



**Marguerite Abouet eta Clément Oubrier**

**Aya de Yopougou**

**Norma Editorial**

TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

### Abenduaren 11tik 17ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

### Abenduaren 18tik 24ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

### Abenduaren 25etik 31ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardianik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

### Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 94 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

### Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 94 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

### Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

### Gorbeialde Landa

#### Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

### Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

### Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

### Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunean orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduo. Jaiegunean: 07:30etik 21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduo. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era orduo.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduo.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

\* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00; 11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20.

\*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorre. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunean: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

### La Union 94 427 11 11

#### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

#### Gasteiz-Bilbo


Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

**Argitaratzailea:** Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus). **Webgunea:** [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus). **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus). **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** [beazpiri@begitu.eus](mailto:beazpiri@begitu.eus). **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** [asierabrisketa@begitu.eus](mailto:asierabrisketa@begitu.eus). **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

### Babesleak:



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:

[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXXVII). Kale berbakunea sustatu guran

#### DURANGOKO AZOKEA

-Hi! Gesu baten Durangoko azokeak hirurogei urte betetan **jozana!!** Urte bi barru!!

-**Ezeistena** esan!! 58 urte **jekozana** dagoeneko?

-Denporea gura ez dala pasetan **dona**, laztantxo.

-Poztekoa **dona** azokeak holango osasunagaz jarraitutea.

-Euskerearenganako interesa oindino bizirik **jaona!**

-**Eñaunkena** gura gazteriak bere euskaltasuna galtzarrik!

## ERETXIA

### Hitanoa

**E**uskerea hizkuntza murriztua dala ez leuke inok dudan ipiniko, ez erabileran bakarririk; murriztuta dago hizkuntzak berak dituan erregistro guztietan: aditzen erregistroa, esamoldeak, lexikoa... Joskera bera be, esaldiak eratuteko modua be guztiz aldatuta dago. Nekez entzuten da gaur egun subjuntibo bat euskeraz, eta euskaltegietan be askotan txarto azalduten da -t(z)ea/-t(z)eko subjuntiboaren bardintzat jotzen danean. Nekez entzuten da potentzial bat, eta hainbat esaldi hasten dira ahal da egin/ahal dot egin erderearen kalkoagaz, eta ez da inondik be entzuten egin lei/egin leiteke/egin neike modukorik. Baina euskereak dituan aditz erregistroetatik baten bat hil hurren badago, hori hitanoa da.

Nik neuk oin dala gitxira arte landu ez dodan erregistroa izan da. Jakin, jakin dot, baina gehiago gurasoen belaunaldiari entzunda, nik neuk erabilia baino. Aita zornotzarra izan dot eta ama igorretarra, bai Zornotzan, bai Arratia aldean hitanoa entzun izan dot, gizonzkoen artean gehienbat, andrazkoen artean ia ezebez; nik neuk erabili baina, ez dot erabili izan Dimara biziten etorri arte. Zornotzan azken urteotan desagertuta egon da adinekoen artean izan ezik, eta Arratia aldean be gazteen artean sano gitxi entzuten da. Urteokaz, baina, interesa sortu da hitanoaren inguruan. Gipuzkoa aldean, hasi dira inguru batzuetan eskola umeakaz landuten. Bizkaia aldean atzerago gabiliz euskerearen erabileran, eta gainera bizkaierearen eremuko hitanoa oso aldakorra da. Hitanoa erregistro informaleko adizkera da, eta erregistro informala ahoskereari oso lotuta dago. Eta zer gertatuten da? Ba... Oñatiko hitanoaren aditzaren formak eta Zornotzakoak egituran oso antzekoak badira be, ahoskera desbardina da, sano. Bardin gertatuten da Arratiako eta Zornotzako hitanoen artean, antz handikoak dira, baina aldeak be badagoz,



**RAFA UGALDE**

Euskera teknikaria

eta alde horreek errespetau egin behar dira, bestela arrotza egiten jakun hizkera erabili beharko geunke, eta arrotza eta artifiziala egiten jakuna ez dogu erabilten erregistro informalean.

Esan dodan moduan urteokaz interesa sortu da hitanoagaz. Gipuzkerearen eremuan ezeze, bizkaierearen eremuan be sortu da interesa. Oñatin badabilz, lurretan eta Durangon be bai, Diman eta Lemoan be bai, eta Zornotzan be bai. Nor bere herriko aditz formak landuten dabil, eta hori hitanoan holan izan behar dala esango neuke; baina arazoa be bada, ez dagoalako materialik, norberak sortuten dauana baino. Zornotzako talde batek itaundu eustanean ea Zornotzan ez dogun ezer egin behar hitanoaren inguruan, deialdia egin genduan ikastaroa antolatuteko, hogei lagunek emon eben izena, baina ikastaroa emoteko materialen arrastorik be ez. Interneten bila hasi, eta Arratiako hitanoaren gainean Gotzon Aurrekoetxeak egindako aditz taulak, Eneko Barrutiak bizkaierako hitanoaren aditz formen proposamena, eta Joseba Sanchoen ekarpenen bat baino ez neban topau. Beraz, baktok ahal dauana egiten dau. Egia esan, Eneko Barrutiaren aditzen proposamenetik abiatuta, ez da gatxa herri baktoketako egokitzenak egitea, baina horrek landuteko ariketak eta jarduerak behar dira, eta horretan hutsunea dago.

Bigarren arazoa da hitunen edadea. Zornotzan hitano taldera lagun barriak etorri dira, baina gazteena berrogei urtetik gorakoa, eta gehienak sano zaharra-goak; eta gazteen artean gatx da holakorik landutea, gehienek eskolatik dakarren euskera gaitasuna ondo eskasa dalako. Arratian ekosistema hobea dago, eskola umeakaz hitanoa landuten hasteko; eta badakit jakin egitasmoren bat badagoala, baina ez jagot niri horren barri emotea.

Dana dala, ahaleginak egingo doguz, baina etorkizun gorria aurreikusten deusat hitanoari.



## LUMATUTEN



## SORAYA LIZUNDIA

## Afrika

**F**ermin Muguruzak zuzendutako *Bidasoa* izeneko dokumentala ikusi dot, persona batzuen kontakizunaren tartean Sahelerrainoko Afrikako mapa agertzen da eta orduetik hona sortutako idea oroitzapen eta sentimenduen nahasketea ordenetako ahaleginetan nabilt.

Dubaiko Ingurugiroko Gailurrak be Afrikako irudi batzuk ekarten deustaz gogora, guk europarrok baztertutako erropaz betetako hondartzenak, itsas bazterretan abandonatutako itsasontzi zaharren eskeletoenak, guk eta besteek deuseztatutako industriaren hondakinak nongura eta koltan, kobalto, urrea eta diamanteen meatzeenak be bai. Afrika kontinente aberatsa eta eskuzabala da, bere lehengaiak ezinbestekoak dira Europako enpresek eta estadiak aberasteko eta guk ibilgailuetarako petrolio edo bateria elektriko erabiliko dogun eztabaidatzen dihardugun bitartean, Afrikako biztanleriari esklabutza, gerra, miseria eta emigrazioa

bestarik ez jako geratzen. Gure ongizatea honetan datza.

Gerraz berba egiten badogu haurtzaroko Biafrako gerra irudiak etorten jataz gogora eta gaur egungo Sahel eremuok be bai. Europako kolonizatzaileek bere interesetarako sortutako biztanleen arteko desbardintasunak daukie jatorria eta deskolonizazio orduan eztanda egiten dau. Munduko historia desbardina izango zan, herriaren duintasuna berreskuratzeko proiektua eukien Patrice Lumumba eta Tomas Sankara moduko personak erailko ez ba ebezan. Saharako gerra ez dago komunikazio medio ofizialetan, baina existidu existiduten da eta Espainiako Estadiak erantzukizuna dauka horretan. Polisarioko kongresuan Marokok Europari egindako txantajeaz ados egon ziran politiko gehienak. Hori da akaso Pedro Sanchezek Saharari lepoa emotearen errazoaia.

Emigrazioa be bada Afrikako beste sufrimendu iturri bat, eta hori bai, hori agertzen da medioetan eta Mediterraneo eta Bidasoan itoten diran personek ito lekura helduteko bidean jasaten daben arriskua, esplotazioa eta irainak be agertzen dira, baina ez dabe jenteari sustriak iteko ebaztera bultzatzen deustien errazoirik aitatzen.

## ZERTZEAN



## Z (I)

## KARLOS ARETXABALETA

**B**etidanik gustatu izan zaio Jose Luisi ilargiaren alde ezkutua, txiki-txikitatik. Askotan galdetu dio bere buruari ea zer ostentzen den gizakiaren begiradak ikus ezin dezakeen leku ilun horretan; eguzkiaren argitasuna eta epeltasuna ezagutzen ez duten leku sekretuek erakartzen dute erabat Jose Luis, begirada kuxkuxeroengandik libre, betiere.

Tankera horretakoa da Jose Luis; Txelu lagunentzat: enpresa ezagun baten burua, idazkari pribatua eta guzti; langile aparta, lanera egunero gorbata eta mokasinak eramaten dituen gizon errespetatua; baina begi-bistan erakusten ez duen aurpegi batekin. Hirian, behintzat, gizon gorentzat dute, eta sarri asko politikari eta beste enpresaburu batzuekin ardoak edaten eta bazkaltzen ikus dakioke.

Edonola ere, Jose Luisek izan badu aitortezina den sekretua, ondo gordeta, ostegunetan barne sailburuarekin edaten dituen ardo beltzak baino ilunagoa.

Andrea eta seme-alaba bi ditu gure enpresariak, azken hauek dagoeneko etxetik kanpora bizi dira eta lanean dabilta. Halere, maiz ikusten dute elkar eta ez dute oporretan egun batzuk elkarrekin egoteko betarik galtzen etxekoek. Haatik, bizitza eredugarri horren atzean inork ezagutzen ez duen hutsartea dauka Jose Luisek bere agendan; inork ez daki nora doan astero berarentzat hartzen dituen bi ordu horietan.

Izan ere, idazkariak agendan *Kontsulta Pribatua SD* jaso baitu soilik.

\*\*\*

Garrantzitsua da norberarentzako tarreak izatea, horrela uste du, behintzat, enpresariak. Hala, azkenean, ostegun arratsaldeko seiak heldu dira. Orain urte batzuk, lanetik irten eta jarraian joaten zen aldirietan kokatutako frontoi batera palan jolastera, baina lesioek ez diote gorputza errespetatzen dagoeneko. Bada, gaurkoan ostegunero bezala eta poteoa hasi aurretik, *Kontsulta Pribatua SD* delako horretara abiatu da Jose Luis.

Lagunek uste dute psikologoaren doala, enpresa munduak ezarritako estresa eta lan-kargak arintzeko, akaso. Etxean, ordea, Pilates edo Yoga tailer berezietara doanaren susmoa dute; izan ere, aspaldian, ostegun gauetan eta ostiraletan arras lasai nabari baitiote... Haatik, oker dabilta.

\* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**H**orma-irudi eder hau Euskal Herriko txoko baten dago, hemen be egon leiteke; izan be, Arratian badoguz, Zeanurin berbarako. Danak kulturearen gorazarrerako. Horma-irudi politik, benetan ederrak, arte adierazpenaren espilu barria. Bitxia egiten jat, baina, zer lehia bizia dagoan horma-irudirik politena eukiteko. Oin emoten dau dana dalako herriak horma-irudirik ez badauka, ez dala herri serioa. Eta bitxiena da ahalegin horretan zenbat diru gastetan dan. Ondo, ondo derixtat, artea pagau behar da. Lehen be, ostera, ez beharbada horreek bezain politik, baina bai pintada eta grafitiak egiten genduzan, doban egin be, eta dirua horreek irudiok ezabatzeo gastetan zan. Horreri hormea garbitutea esaten jakon.

**Alvaro Rabelli**



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisl.com](mailto:gorosti@gorostisl.com)

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39  
Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24  
Arkaitz 677 46 40 91  
Golder 666 58 20 06  
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • [beerredonok@gmail.com](mailto:beerredonok@gmail.com)

**agoa**  
hagin klinikak  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bidaka  
T. 94 631 50 39  
Ikalgaitza Zerbitzuak 900  
R.P.S. 31/06

AREATZA

## Baserriko eta artisautza produktuak salgai abenduaren 16an

### Erredakzioa

Abenduaren 16an, 10:30etik 15:00etara, nekazaritzako elikagaien eta artisauren produktuak azokea egingo da, plazan. Eguraldi txarra egin ezkeroko eskoletako atzerpean izango da.

Areatzako azokan, Arratia eta inguruko herrietako produktuak erosi ahal izango dira: baserriko ogia, euskal pastela, ortuariak, gaztaia eta pateak beste. Inguruko artisauren lanak be egongo dira salgai. Egindako erosketak guztiek tokiko produktu loteen zozketan parte hartuko dabe.

### Areatzan, urteko laugarrena

Areatzan urtean egiten diran lau azoken azkena izango da abenduaren 16an egingo dana.

Martian egiten da urteko lehen azokea, Karpoko jaiak dirala-ta; bigarrena maiatzean izaten da, ganadu, ekoizle eta artisautza azokea, eta hirugarrena, urrietan egiten da Euskal Jaiagaz batera.



ARRATIA, ZEBERIO

## Aire! dokumentala Artean, Zeberion, Areatzan eta Igorren ikusteko aukerea egongo da abenduan

### Erredakzioa

Gentzane Martinez de Osabak zuzendutako *Aire!* dokumentala, Bilboko Zinebi jaialdian estrenatu zuten zinemaren 12an, eta Arratian ikusteko aukerea egongo da abenduan bigarren hamabostaldian.

Lehenengotik, Mauriziaren bizitzan garrantzia handia izan eban Artean eta Zeberion; Artean abenduaren 16an, 19:00etan, eleizan eta hurrengo egunean, hilak 17, Zeberioko udaltekoko 2. solairuko gelan, 18:00etan. Hurrengo pasea, Areatzan izango da, hilaren 28an, 19:00etan, udaltekoko Areta Nagusian. Igorren, abenduaren 30ean, 20:00etan, botako dabe Lasarte Aretan, eta Lemoan, urtialaren 11n egongo da ikusgai.

### Mauriziaren Arratia

Maurizia Aldeiturriaga pandero-jolearengan inspiratutako musika pieza bat sortzeako musika ikasle talde baten sormen prozesua kontetan dau filmak. Arratiak protagonismo handia hartzean dau film honetan. Izan be, Zeberion jaio eta Artean bizi izan zan urte

askoan hil arte, eta Martinez de Osabak BEGITURI azaldu eutsanaren arabera, dokumentaleko musikari gazteek "Mauriziaren lekuak ezetu eta bisitetan ditue". Musika ikasle horreen artean, Arratiako Musika Eskolako ikasleak dagoz. Mauriziaren familia, bere ondorengoak be agertzen dira filmean eta pelikulo talde teknikoan be badago arratiarrik; Igorreko Euke-ni Arriortua argazkigintzan, esate baterako.



ZEANURI

## Zeanuriko organu zaharbarritua berrinaugurauko da Xabier Urtasunen goi-mailako kontzertuagaz

Zeanuriko Andra Mari parrokiako organua urtebete inguru mutu egon da zaharbarritze lanak egiteko.



Alejandro Turanzas, organua zaharbarritzeaz arduratu dana, Karme Angoitia herriko organu-joleagaz.

### Jon Urutxurtu

Abuztutik mezetan, herriko organu-jolearen eskutik bere soinua entzuteko aukerea izan bada be, abenduaren 27an, eguaztenean, arrastiko 19:00etan berrinaugurazino ofiziala egingo da Xabier Urtasun organu-jolearen goi-mailako kontzertuagaz.

113 urte dituan organu hau Bartzelonan eregi eban Lope Alberdik 1910. urtean. Parrokiak, herritarrak eta batez be Santos López de Letonak ipinitako diruagaz ordaindu ebezan kostuaren 15.000 pezetak, dirutzea sasoi haretarako. Abuztuaren 15ean, Andra Mari egunean, inauguratu eban.

Organu erromantikoa da, 56 notako tekladu bi dituan, gehi 27 notako pedalontzi bat, eta transmisio mekanikoduna. Haribitxia da, Lope Alberdiren onena, Abadiñoko San Trokaz eta Areatzako San Bartolome parrokiarako eregitakoakaz batera.

### Bigarren zaharbarritzea

Ez da organu hau zaharbarritzen dan lehenengo aldia, 100 urte betetean, eguneratze behar handia egin zan, baina ez zan izan erabateko zaharbarritze lana, eta denporeagaz akatsak agertu ziran, ez ebilen behar eban moduan. Ondorioz, 2022ko garagarrean, 112 urte betetzear egoala, organua zainketa intensiboetan sartu zan: A. Turanzas Organeros Igorren tailerra daukan enpresa arduratu da beharrezko lanak egiteaz, batzuk parrokiaren bertan eta beste batzuetarako, piezak Igorreko tailerretan erogan dabez.

Alejandro Turanzas izan da lanak egin dituan. Elementu moderno-

rik ez sartzea izan da zaharbarritzearen konpromisoa, ezta jatorrizko eraikuntzan erabilitako materialez bestelakorik be. Jatorrizko narru eta egurrak erabili dira, eta kutxan eta fatxadetan, konsolan, tekladuan, noten eta erregistroen transmisioan, sekretuetan, hauspoetan, motorhaizagailuan, haize-ontzietan eta hodiak egin dira lanak, eta ostean afinatu egingo da. Lan honek guztien kostua larogei mila euro ingurukoa izan da, eta Zeanuriko parrokiak ordaindu dau.

### Lope Alberdi goi-mailako organugilea

Lope Alberdi (Guategiz-Arteaga 1869-Bartzelona 1948) 1869ko urri lehenengoaren 25ean Guategiz-Arteagan jaio zan. Bere gurasoek ostatu txiki bat eukien. Hor Akilino Amezuak hartu eban ostatu, Guategizko parrokiako organuaren muntaia lanak egiten eban bitartean. Dirudiane, Akilino, mutikoa azkarra eta trebea zala konturatu zan eta bere lan taldean sartu eban.

Lope Alberdik 15 urte eukazanean eta gurasoen baimenagaz, Amezuak Bartzelonara eroan eban beragaz behar egitera. 22 urte besterik ez zituala, tailerreko buru moduan, Filipinetara bialdu eban instrumentu batzuk muntatzera. 23 urteagaz Bartzelonan ezkondu zan uri haretan bizi zan Dolores Aguirrezabal durangarragaz eta zortzi seme-alaba euki ebezan, horreetako bat, Antonio Alberdi Agirrezabal, musika sakrako konpositore ospetsua.

Alberdi XX. gizaldiaren lehen urteetan Akilino Amezuarengandik banandu zan, eta Bartzelonako Gracia pasealekuko 126. zenba-

kian jarri eban tailerra: Lope Alberdi y Cia.

Lope Alberdi y Cia sinadurapean agertzen dan lehen organua Bergarako Hirutasun Santuaren Monasterio kletarrerako eregi eban da, 1902an inauguratua.

Ibilbide profesional luzea egin ondoren, Espainia mailan zein nazioartean, 80 organu baino gehiago eregi zituan, horreetako bat Zeanurikoa.

Lope Alberdi 1948ko martiaren 20an hil zan Bartzelonan, 79 urte zituala.

### Xabier Urtasun Eraso goi-mailako organu-jolea

Nafarroako Iruritan 1993an jaioa, organista, klabezinista eta musika-pedagogoa da.

Hainbat garaitako tekla instrumentuen errepertorioan interesetan da; pianoa, organua eta klabezina ikasiz Donostian, Stuttgarten eta Bartzelonan.

Goi-mailako tituluak kalifikazio gorenakaz lortu ditu: Pedagogia espezialidadean Musikenen (Donostia, 2016); organu espezialidadean Stuttgarten (2021); Kodály metodologian espezializatu zan (Hungarian eta Argentinan) eta Errioxako Nazioarteko Unibertsitatean (UNIR) Musika Ikerkuntzako Masterra eskuratu dau (2023).

Baju jarraitua be ikasi dau hainbat irakaslegaz.

2019an Joseph Gabler Nazioarteko Organu Lehiaketan hirugarren saria jaso eban Ochsenhausen-en (Alemania). Bakarlarri moduan kontzertuak eskaini ditu musika ziklo eta jaialdietan Euskal Herrian, Espainian, Frantzia, Alemanian, Portugalen eta Hungarian. Hainbat formazionagaz jo dau: Orchestre Symphonique du Pays Basque, Iruñeako Ganbera Abesbatza, EHU-ko abesbatza, Bach Collegium Barcelona, Rutesheimer Kammerorchester, eta abar. 2021ean Toul-eko (Frantzia) katedralaren 800. urteurrenaren omenez egindako Olivier Messiaenen organurako obra integralaren grabaketan parte hartu eban.

Gaur egun Donostiako Francisco Escudero Musika Konserbatorio Profesionalean organu irakaslea da eta Musikenen Kodály metodologiako irakaslea. Horrez gain, Orkestra del Miracle orkestra barrokoko kidea da, klabezinista eta organista moduan.

## AREATZA

## Areatzako eskolea guztiz barriztau eta espazio barriak sortu dabez

Urte eta erdiko lanen ostean, abenduaren 11n estrenau eben eskola-umeek guztiz barriztautako eskolea.

### Erredakzioa

Eskola osoa margotu da, lehio barriak, zoru bero-emoilea eta igongailua ipini ditue, eta gimnasioa, olgetako leku zabalak, sukaldea, eta jangela estrenau ditue umeek eskola barriztatu. Gainera, Bolibar eraikina eta eskolako beste eraikina lotu dira, eta eskolako sarrera barri bat egin da. Berdeguneak eta olgetako espazioak be sortu dira.

Abenduaren 16an, 11:00etatik 13:00etara, herritarrek eskola barria ikusteko aukerea izango dabe. Eusko

Jaurlaritzako ordezkariakazko inaugurazio ofiziala urtailean izango da.

Guztira 123 eskola-ume dagoz Areatzako eskolan, kopuruak gorabeherak izaten ditu, herrian errefujiaduentzako harrera etxea dagoalako eta ikasturtean zehar diralako, baina ume kopurua horren bueltan egoten dala adierazo deuto BEGITU Amaia Iturrioz Etxebarria eskolako zuzendariak. Haur Hezkuntzako umeek Bolibar eraikin barriztatu estrenau dabe. Bolibar eraikina "lehen be erabiltzen genduan. Beheko aldean ego-

zan Haur Hezkuntzako gelak. Oin, goikoa egokitu da. Goian, Irakasle gela, Zuzendaritza, eta idazkari-tzako kontu guztiak ipini dabez" dino zuzendariak.

### Gimnasio, jangela, sukalde eta olgetako leku barriak

Gimnasio eta psikomotrizidade gela barriak dagoz eskolan, ikasleak eta euren preminak hartzeako egokitu diranak. Bolibarko eraikinaren eta eskolearen artean egoan harresia botata, berdeguneak berreskuratu dira eta olgetako espazio desbardina sortuko da han. "Aterpe zati hau be zabaldu egin da. Jolasak ipini eta egokitu egin da: hemen dana zan eskailerea eta oin aldatsa be ipini dabe".

Garrantzia handiko beste aldaketa bat, sukaldea eta jangela dira. Izan be, bertan sukaldatzeko prestauta dago oin eskolea. "Momentuz, oin arte funtzionau dogun moduan jarraituko dogu, catering-agaz, baina sukaldea egokitu da jatekoa *in situ* egiteko. Oindino ez gara hasi, ze horrek Hezkuntzak egiten dauan prozesu bat daroa".



## IGORRE

## Igorreko Euskera Plana diseinetako galdetegia heldu jakie herritarrei

### Erredakzioa

2024-2029 epealdiko Igorreko euskera plana diseinetako Udalak galdetegia ipini dau herritarren eskura euskeraz eta gaztelaniaz. Izan be, "Igorreko Euskerearen Plan Estrategiko barria diseinetako herritarren ahotsa entzun gura dau Igorreko Udalak". Ahize AEK-k diseinatu dau egungo egoerearen ebaluazioa eta plangintza barri-rako lan ildo nagusien diseinurako

proposamena.

Horretarako, lehenengotik, galdetegiak zabaldu dira, online, whatsapppe, sare sozialetan eta beste baliabideen bitartez; gixtinez, 100 galdetegi beteta jasoteko helburuagaz. Galdetegia paperean beteteko aukerea be badago. Ondoren, galdetegietako informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa aztertu eta irakurriko ditu Ahizeko lantaldeak, eta diagnostiko txostenaren lehen zirriborroa aurkeztuko

deutso talde eragileari, taldearen ekarpenak jasoteko.

Parte-hartze prozesua abiatzeko, Igorreko herritar eta eragileak eztabaida taldeak antolatu eta dinamizatu be egingo ditu Ahizek.

### Plan estrategikoaren diseinua

Ondoren diseinu fasea izango da. Eztabaida taldeetan jasotakoak, bateratu, konpartidu eta osotuko dira igorretarrakaz egingo dan lanketan. Aurreko faseko saioetan parte hartu dabenek eta interesa daukienek hartuko dabe parte; baita, ordezkari politikoe, talde eragileak eta Igorreko AEK-kideek. Bertan, plan estrategikoaren oinarriak zehaztuko dira, eta hortik abiatuta Ahizek behin-behineko planaren zirriborroa osotuko dau. Ostean, talde eragileari aurkeztu eta aste biko tartea zabalduko da, gura dauanak ekarpenak egin ahal izateko.



## IGORRE

## Gabonetako zugatza biztu dau eta sei otzara zozketatuko dauz merkatarien alkarteak

### Erredakzioa

Igorreko AME, merkatarien alkarteak presentzia izango dau aurten-go Gabonaldian be. Hilaren 1ean, BBK aurrean dagoan Gabonetako zugatza biztu eben eta 26an, Ganso & Cia konpainiaren *Babo Royal* clown antzerki familiarra ekarriko dabe Lasarte Aretora. Ikuskizunaren ostean, herriko dendetako produktuak osotutako 6 otzara zozketatuko dira. Zozketarako txartelak eskuratu daitezke doban AMEko dendetan erosketak

eginda. Otzaretako bat antzerkira doazenen artean zozketatuko da.

Cecilia Paganiniren laguntzeagaz Gorka Gansok gidatutako proiektua da Ganso & Cia konpainia. *Babo Royal* "hierarkiak trukutzen" dituan jolasa da. Personajeak, 50 m<sup>2</sup>ko inperio bateko burutik jotako erregea eta trobalaria dira. "Tronpetak entzun eta banderak astintzen dira. Ospakizuna hasi daitela! Fisikoki edo sinbolikoki guztiok gagoz konbidautu desfile, burruka edo torneoan parte hartera" dinoe webgunean.



## DIMA

## Argazki Lehiaketea antolatu dau Dimako Udalak

### Erredakzioa

Herriko ekimenetan herritarren parte hartzea sustatzea eta Dimako argazkien bilduma bat osotutako helburuagaz, Dimako Udalak argazki lehiaketa bat ipini dau martxan. Argazkiak 2024ko urtailaren 31ra arte bialdu daitezke *harrera.dima@bizkaia.org* helbidera. Saria

10 euroko 10 bonu izango da herriko komertzioetan gastetako.

Diman erroldatutakoek hartu daikie parte. Gehienez argazki bi aurkeztu ahal dira, jpg. formatuan. Argazki bakotzak izenburu bat izan behar dau. Epaimahaia Udalak izentauko dau eta saridunaren barri urtearen lehen hiru hileroan emongo da.



ARRATIA, UBIDE

# BideON Arratian izango da garraio zerbitzu publikoko proiektu pilotu jasangarriaren izena

Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide eta Zeanuriko biztanleak bideON Arratian izeneko eskaerearen arabeko garraio zerbitzu publikoa diseinetan hasi dira.

### Erredakzioa

Horretarako, Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Bizkaiko Foru Aldundiak inkestea ipini dabe mar-tzan, garraio zerbitzu personalizau barriaren ibilbideak, abiapuntuak, helduera puntuak, ordutegiak eta maiztasunak zehazten laguntzeko.

Biztanle asko eremu sakabana-tuetan bizi diranez, herrigunetik urrun dagoz, eta, horren ondorioz, bertako zerbitzu nagusietatik be bai, herritarrentzat garrantzitsuak dirala kontuan hartuta: udaletxeak, osasun-zentroak, botikak, bankuko bulegoak eta kutxazainak, besteak beste. Era berean, prestakuntza zentro eta unibersidade campus nagusietatik be urrun dagoz. Holan, bizilagunen eguneroko joan-etorriak, eskaera txikiko eta maiztasun alda-garrikoak dira eta garraio publiko tradizionala ez da ez eraginkorra ez bideragarria, kostu handia dauka-ta.

### Galdetegia

Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Celering enpreseari esleitu deusie nahierako garraio publiko jasanga-ri, adimendun eta personalizau eskaintzeko proiektu pilotua. Horretarako, zerbitzua antolatzeko fasea ipini da martzan, eta zerbitzuko gereduak eta ibilbideak zeintzuk diran zehaztuko da bertan.

Arratiako biztanleek parte hartu ahal dabe inkesta txiki baten, garraio zerbitzu hori diseinatu eta personalizau ahal izateko. Inkesta horretan batutako informazioa funtsezkoa izango da maiztasun handieneko

ibilbideak diseinetako eta eskuraga-ri dagozan ibilgailuak aurreikusitako eskarira egokitzeko.

Inkestan parte hartzeako inprimakia online bete ahal izango da, bideON estekan, edo 94 471 46 24 telefonora deituta, inkestea telefonoz be egin ahal izango da.

Bederatzi udalerriotan bizi arren inkestan zuzenean parte hartzerik ez daukien biztanleek senideen edo inguruko laguntza jaso ahal izango dabe, euren izenean erantzun daien, eta, holan, joan-etorrietarako daukiezan preminak zerbitzuaren antolaketan kontuan hartu daitezkan.

### BFAk finanziauta

Ekimen barrizaille honen bidez, Arratiako Udalen Mankomunitateak gixitu egin gura dau ibilgailu pribaduaren inguruko menpekotasuna, baita CO<sup>2</sup>ren isuriak be. Era berean, eskualdean bizi diranen bizi-kalidatea hobetu gura dau, egon badagoan garraio zerbitzu publikoaren osogari gidari profesionalen ardurapean dagoan garraio seguruaren bitartez.

Ekimen hau Bizkaiko Foru Aldundiak finantzau dau guztiz, "Herri txiki aukera handi" foru-programearen testuinguruan. Helburua da Bizkaiko herri guztiek zerbitzu publikoen eskaintza izatea, bai gizarte-arlokoak, bai mobikortasunari, aisialdiari, kirolari eta Internetarako sarbideari lotutakoak, besteak beste.

Antolatuta dagoanean, proiektu pilotuan parte hartzeko eskakizunak beteten dabezan eskualdeko biztanleak 2024ko urtailaren hasieratik hasi ahalko dira erabiltzen.

PARTE HARTZEKO, ESKANEATU QR HAU ZURE MUGIKORREKO KAMERAREKIN EDO DEITU 94 471 46 24 ZENBAKIRA



94 471 46 24

### Zertan datza zerbitzua?

Mugikortasun publikoko zerbitzu bat da, autobusak, minibusak eta tokiko taxiak barne hartuko dituen eta bailarako bederatzi udalerrietara iritsiko dena. **Aplikazio mugikor baten bidez edo 94 471 46 24 telefono-zenbakira deituta** zure bidaiaren erreserbatzeko aukera izango duzu 2024ko urtarrietik aurrera.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

# Arratiako hitanoa berbiztuteko, aditzen "txuleta" etxeetara bananduko dau BEGITUK

Aditzik ibilienak Arratiako hikan zelan diran jasoten dauan txuletea, BEGITUGaz batera bananduko da etxez etxe, 7.300 ale. Epe laburrean, Boltsikorako Hitanoa liburuxka egin eta Arratia, Ubide eta Zeberio biztanleen esku ipinteko asmoa be badago.

### Erredakzioa

Izan be, hitanoaren egoera gero eta eskasagoa dala jaubetuta, hitzun kopuruari zein kalideari jagokonean, berau bultzatzeko proiektua abiatu dabe Karlos Aretxabaletak, Gotzon Aurrekoetxeak eta Rafa Ugaldek, Zertu Kultur Elkartearen laguntasunagaz. Udaletan, proiektuari babes eske, gutun bat aurkeztuten dabiz.

Gauza bi eskatzen deusez udalei proiektuaren bultzatzaileek. "Batetik, Arratia haraneko udalerrri guztien konpromiso edo atxikimendua gai honeganako, zuen babes instituzionala ezinbestekoa da-ta, hika bizibarrizteko edota herritarren ahora ekarteko. Eta bestetik, babes ekonomikoa, epe laburrean Arratiako hikaren hedatze prozesuan asko lagundu leikien egitasmo bi gauzatzeko: Txuleta izeneko txartelak inprimidu eta lau haizetara zabaldu; bigarrena, Boltsikorako Hitanoa liburuxka jorratu, ezetu arazo eta Arratia, Zeberio eta Ubideko biztanleen esku itxi".

### Proiektuaren sorrerea

Zemendiaren 11 eta 12ko aste-goienean, UEU, Ahotsak eta Badihardugu euskera alkarteek antolatuta, Euskal Herriko lehenengo Hika topagunea egin zan Oñatin.

Topaketa horren helburuetako bat hitanoa bultzatzen dabiz eragileak alkar ezetutea zan, eta alkarlanerako bideak topetea. Arratiako ordezkarien artean, Rafa Ugalde –zornotzarra izatez, baina Diman finkatua–, Gotzon Aurrekoetxea EHUko irakasle izandako dimoztarra eta Karlos Aretxabaleta Bediako egoan ziran. "Kale neurketetan oinarritutako datuak aurkezteko modurik ez badago be, begi bistakoa da gure herrietan hitanoa

atzeraka dabilela; nagusiak badoaz eta gazte askok ez deusie heldu. Bestalde, andrei egin beharreko hikak, hau da, nokak, joan dan mendean sekulako atzerakadea bizi izan ebanez, gaur egun nekez jakin geinke zenbat andra berba egiteko gai dan; bakan batzuk, seguruenik. Bada, berau kontutan hartzeakoa dala deritxagu" dino Karlos Aretxabaleta proiektuaren bultzatzaileetakoak, udalei zuzendutako eskutitzean.

## Txuletea:

### 30 ADITZIK IBILIENAK

Naz> nona / nok  
Zara> haz  
Da> dona / dok  
Gara> gozana / gozak  
Dira> dozana / dozak

Nintzen> nintzonan / nintzoan  
Ziñen> hintzoan (hintzen)  
Zan> zo(a)nan / zoan  
Giñen> gintzozanan / gintzoazan  
Ziren> zozanan / zoazan

Dot> jonat / joat  
Dozu> dona / dok  
Dau> jona / jok  
Dogu> june / juk  
Deurie> jeuriena / jeuriek  
Dauz> jozana / jozak  
Deurie> jeuriezana / jeuriezak

Neuen (Noan)> ñonan / ñoan  
Zindun> hindun

Animau hai, ni ikisten ñabiñeta!  
Ederto! Gurea agertu beha June!



Jat(a)> jatana / jatak  
Jatzu> jataa / jataa -jak-  
Jako> jakona / jakok  
Jakie> jakiena / jakiek

Doste> jostena / jostek  
Dotsu> doana / doa  
Dotse> jotsena / jotsek  
Dosku> joskune / joskuk

INMOBILIARIA



Promozioak, pisuak, etxeak, baserriak, lurak, txaletak...

ARRATIako BAZTERRAK ZEIN POLITAK DIREN!

Lehendakari Agirre, 8 behea · 94 631 80 04 · IGORRE  
igorre@inmolarrea.com  
www.inmobiliarialarrea.com  
WhatsApp 660 452 420

**Gabon zoriontsuak eta urte  
barri on opa deutsuegu!**



**Mahai gainean turroi apur bat  
eta gaztainak erreta.  
Etxeetatik banatuteko  
ikatz txondorra ganezka.  
Olentzero ta Mari Domingik  
laster eingo dabe buelta.  
Urte barria etor daitela  
poz ta irrintziz beteta!**

**IGORRE**

## Pump Track ikastarorako izen-emotea zabalik dago



### Erredakzioa

Ikastaroa abenduaren 30ean izango da. Maila bi dagoz, oinarrizko maila 10:00etatik 11:55era izango da eta hobekuntza maila 12:00etatik 14:00etara. Izena [https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdPUEVqhmRXdEy\\_M2bjrwqb6lufTm-N55aZeYwxLpavjy5YQ/viewform?tpclid=facebook.PA.AaavGXueGGsIlgz763H3hc5U92E5\\_26e2b7st1aioBH22qkqA7-7Ai2MhS8\\_aem\\_ASHixrd-TX07wESNHqRWHdCck7U3e-j5XZPg1LCRKhRSIqXAPp3FsbB-yhmdFZg1ZZi0c](https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdPUEVqhmRXdEy_M2bjrwqb6lufTm-N55aZeYwxLpavjy5YQ/viewform?tpclid=facebook.PA.AaavGXueGGsIlgz763H3hc5U92E5_26e2b7st1aioBH22qkqA7-7Ai2MhS8_aem_ASHixrd-TX07wESNHqRWHdCck7U3e-j5XZPg1LCRKhRSIqXAPp3FsbB-yhmdFZg1ZZi0c) estekan emon

behar da. Masterclass-ean parte hartzeako gitxieneko adina 10 urtekoa da eta plazak mugatuak dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatatu dau Masterclass Pump Track 2023 izenagaz ikastaroa. Oinarrizko maila oindino Pump Track-ean inoz ibili ez diranak, sarritan ibiltzen ez diranak edo konfiantza hartu gura dabenak apuntatu daitezke. Hobekuntza mailan barriz, Pump Track-ean denpora bat darenen eta trikimailu aurreratuak hobetu edo lortu gura dabenek emon behar dabe izena. Izena zein mailatan emon zalantzan egon ezkerro, oinarrizko mailan emotea gomendatzen da.



**HONDAKINEN  
GIDA**

**ORGANIKOA: edukiontzi marroira**

**HONDAKIN ORGANIKO GUZTIAK**

**(okela eta arraina be bai)**

**Apunta zaitetz: 94 631 17 17**







# Erabili meloia

## Gorde erosketa-tiketa

**Kontsumitu buruarekin**  
**#KontsumitzenJakin**

*Euskadi, auzolana, bien común*

**kontsumoBIDE**  
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO

f t i [www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus)

## GABONETAKO PROGRAMAZINOA

# Aisialdirako jarduera ugari Gabon sasoiari

Arratia, Ubide eta Zeberioiko Udal eta alkartek hamaika ekintza antolatu dabez herrietan urteko atzen egunetarako. Izan be, Gabonaldia, neguko solstizioa edo urte amaierako egunak ospakizunetarako sasoi da. Gurean be, jarduera kulturalak, kirola, Olentzero eta Mari Domingi eta umeentzako parkeak ez dira faltauko.

## Erredakzioa

**ARANTZAZU****Abenduak 15, barikua**

Hilaren 22ra arte, 10 eta 17 urte bitartekoek emon leikie izena, 26an Derioko Jump Yard-era joateko. 5 euro.

**Abenduak 24, domekea**

Auzoz auzo Gabon kantak abestu. Olentzero eta Mari Domingiri harrerea.

**Abenduak 26, martitzena**

10:00etan, 10 eta 17 urte bitartekoentzako Derioko Jump Yard-era urtekerea.

**Abenduak 27, eguaztena**

Arantzazuko ludotekeagaz, HH4 eta LH2 bitartekoentzat Alluitz Naturara urtekerea.

**Abenduak 30, zapatua**

Herri urtekerea Iruñeara planetarioa ikustera eta bisita gidatua eta ondoren Basaburua jatetxean bazkaria 26 euroan.

**Urtilak 3, eguaztena**

Arantzazuko ludotekearen urtekerea Gasteizera patinatzerara, LH3-LH6 bitartekoentzat.

**AREATZA****Abenduak 15, barikua**

20:00etan, Feile taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

**Abenduak 16, zapatua**

10:30etik 15:00etara, nekazaritzako elikagaien produktuak eta artisautza azokea plazan. Egindako erosketa guztiek tokiko produktu loteen zozketan parte hartuko dabe.

20:00etan, Beerllaro, Areatzako garagardozale alkarteak antolatutako gaztai eta garagardao katea eta 22:30ean, Cosmic Bears taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

**Abenduak 17, domekea**

09:30ean, eleiz portalean. Turroi eguna. Goiz osoko urtekerea izango da. Ubide-Siskina-Harrikutze kobea-Ubide. Turroia eta saldea Guraso Elkartean eta Lamino Kirol Klubaren kontu.

**Abenduak 24, domekea**

17:30ean, Olentzero eta Mari Domingi badatoz, kalejirea plazatik. Umeek taldeko argazkia egiteko aukerea eukiko dabe Olentzero eta Mari Domingigaz Gortazar jauregian. Guraso Elkartek antolatuta.

**Abenduak 26, martitzena**

18:00etan, grafiti erakusketea Laminetxe Gaztetxean.

**Abenduak 27, eguaztena**

18:00etan, zumba tailerra Laminetxe Gaztetxean.

**Abenduak 28, eguena**

17:00etan, *Kiriku eta sorgina* umeentzako filma eta fruta jana Laminetxe Gaztetxean. 19:00etan, *Aire!* dokumentala udaletxeko Areto Nagusian.

**Abenduak 29, barikua**

19:00etan, mikro irekia Laminetxe Gaztetxean.

**Abenduak 30, zapatua**

19:30ean, Areatzako Bandaren Gabonetako kontzertua eleizan. Gaia: Atzoko eta gaurko zinema. Areatzako Bandak antolatuta.

**Abenduak 31, domekea**

11:00etan, argazkia eta bideoa Urrekoatxan. Hamaiketako bertan. Bakotxak gura dauan orduan eta moduan igon ahal dau. 09:30ean, eleiz portalean igoten

ez dakienentzat. Lamino Kirol Klubak antolatuta.

17:30ean, II. San Silbestrea plazan hasita. Lamino Kirol Klubak antolatuta.

**Urtilak 5, barikua**

18:00etan, Erregenetako Kalgatea Karpon hasita, eguraldi txarra bada, plazan.

**ARTEA****Abenduak 15, barikua**

Hilaren 20ra arte, abenduaren 28an egingo dan Gabonetako Umeen Parkera urtekerarako izen-emotea udaletxean.

19:00etan, Irakurleen Txokoa, Miren Amurizaren *Basa*. Kultur Etxean.

**Abenduak 16, zapatua**

19:00etan, *Aire!* dokumentala eleizan.

20:30ean, kontzertua Toketan jakuna Herriko Bentan.

**Abenduak 24, domekea**

17:00etan, plazatik hasi eta auzorik auzo kantetan.

19:00etan, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea.

**Abenduak 26, 27 eta 29 eta urtilak 2, 3, 4 eta 5**

11:00etatik 14:00etara, Gabonetako ekintzak ludotekan.

**Abenduak 28, eguena**

10:00etatik 18:00etara, 2011 eta 2018 bitartean jaiotakoek urtekerara Gabonetako Umeen Parkera.

18:30ean, Pituxa clowntu kontzertu Herriko Bentan.

**Abenduak 29, barikua**

10:30ean, sukaldaritza agroekologikoko tailerra *Sukaldea kolektibizatzen: elikadura burujabetza feministarantz*. Herriko Bentan.

**Abenduak 31, domekea**

Gabon Zahar jaia 01:00etatik aurrera, 1980-1990 hamarkadetako musikea eta mozorroak Herriko Bentan.

**Urtilak 3, eguaztena**

18:00etan, Ameli eta Xirrikietuen jostunek ipuin kontalaria, *Basoko sekretuak* Kultur Etxean.

**BEDIA****Abenduaren 11tik 21era arte**

16:30etik 19:30era, Gabonetako Txartel Lehiaketan parte hartu daben marrazkien erakusketea, Playmobil belenaren maketearen erakusketea eta birziklatzeko materialez egindako Gabonetako zugatzen erakusketea liburutegian.

**Abenduak 16, zapatua**

14:30ean, jubiladu eta pensionisten alkartekoen bazkaria frontoian.

**Abenduak 17, domekea**

16:30etik 19:00etara, Bingo Kafea frontoian.

**Abenduak 18, astelehena**

17:15etik 19:15era, Gabonetako tailerrak liburutegian.

**Abenduak 19, martitzena**

18:30ean, Arratiako Musika Eskolarean kontzertua eleizan.

**Abenduak 22, barikua**

17:30ean, Gabonetako jaia. Erakusketak: eskulanean ikastaroan egindako lanak, marrazketa ikastaroan egindako lanak, Gabonetako postalak eta birziklatutako materialak egindako zugatzen; 18:00etan, Gimnasia erritmikoko erakustaldia, Jauziri jantza taldearen erakustaldia, salta/merenge erakustaldia, Gabon Postalen Lehiaketako sari banaketea eta Gabon Zugatzen Lehiaketako sari banaketea; 19:00etatik 20:00etara, pintxoak eta edaria. Frontoian. Sarrerea: janari pakete bat personako edo euro bi.

**Abenduak 24, domekea**

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Olentzero frontoian.

13:00etan, Olentzero eta Mari Domingi plazara joango dira umeak egoteko. Gaztaina erreka bananduko dira.

**Abenduak 29, barikua**

10:00etan, Bilboko Gabonetako Umeen Parkera urtekerea.

**Urtilak 3, eguaztena**

16:00etan, 8 urtetik gorakoentzat, Gasteizko City Jumpera urtekerea.

17:00etatik 19:00etara, City Jump eta askaria: pizza, patatak, txutxeak eta tartea.

**Urtilak 5, barikua**

18:30ean, Erregeen Kalgatea frontoian.

**DIMA****Abenduak 16, zapatua**

17:00etan, bigarren eskuko liburu eta musika azokea bertako ekoizle eta artisauakaz frontoi txikian eta *Kimikarin* tailerra, ginkana zientifikoa Abaroa aretoan; 19:00etan, Alain magoa *Ezinezko misteriotsuak* ikuskizunagaz. Pleno aretoan.

**Abenduak 17, barikua**

11:30ean, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea Antzasti Euskaldunon Etxean.

**Abenduak 20, eguaztena**

19:00etan, Nerea Ibarzabalena *Bar Gloria* liburuaren aurkezpena liburutegian.

**Abenduak 21, eguena**

18:00etan, Ane Gebara ipuin kontalaria ludotekan.

**Abenduak 23, zapatua**

12:30ean, Arrapaladan, Dimako I. Lasto Jasotze Txapelketea. Kirolariak: Tübi, Jon Loiola, Unai Ardeo, Beñat Amade, Oier Gonzalez, Iñaki Bereau, Patxi Ituarte, Bingen Erleaga, Xabat Erleaga, Andoni Elizondo eta Eder Lopez. Frontoian.

**Abenduak 24, domekea**

11:00etan, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea. Eleizatik hasita.

**Abenduak 30, zapatua**

19:00etan, Andraizeak antolatuta, *Tortolara arte, andra lodi baten egunerokoa* Ana Goitiagaz eskolako kamaran.



## Gabonetako ospakizunak, hobe Gorbeiaiko produktuakaz



Kalidade eta nortasun handiko produktu jasagarriak dira gure gastronomiaren oinarria, eta ekoizleen eta sukaldarien lan onak egiten dau gure sukaldaritzea hain estimadua. Arlo bi horreen artean alkarlana beharrezkoa dala eretxita, Landa Garapenerako Gorbeialde Alkartea, konprometidu gura izan da bertoko produktoreakaz, euren kalidadezko produktuak mahai guztietan egon daitezana eta, Gorbeia ingurua, gastronomia erreferente izan daiten. Aurtengo Gabonetan, inguruko produktuen bikaintasunagaz eta gure sukaldaritzaren maila gorenagaz gozatuteko lekurik onena Gorbeia ingurua dalako.

### Gastronomia, jentearen hartu-emonetarako etxean eta kanpoan

Hartu-emonetarako modu bat izan da gurean beti jana eta edana. Besteakaz berba egiteko eta bizitzaz disfrutatuko modu bat da, egoera eta ospakizun desbardineta egokitzen dana: etxean familiakoakaz, tabernetan lagunakaz... gastronomiak leku parebakoa dauka gure bizimoduan.

Eta gastronomia esperientzia guztien prozesuaren abiapuntua, merkadua da. Produkturik freskoenak eta gozoenak erosi behar dira, errezeta tradizional zein modernoakaz sukaldatu eta platerera aterateko. Gorbeialdek bultzatutako "Herri bat, merkatu bat" ekimenagaz, inguruko produktuok ekoizleari zuzenean erosi ahal jakoz. Mimos landutako produktu ezin freskoagoak.

Oingo udagoienera hainbat herritan egondako azoketan, erosi ahal izan doguz baserrietako barazkiak eta artzainen gaztaiak, barazki freskoak, ekoizleen ortuetatik atera barriak; eta Gorbeian bazkatzen daben erraza autoktonoen ardi esneagaz egindako, Idiazabal motako gaztaiak, esate baterako. Plater nagusirako, aske hazitako animalien okela produktuak eta arrautzak be salgai dagoz azoka horreetan. Arrakasta handia izaten dabe ogi artisauek eta euskal pastekek, eta inguruko sagardoa, txakolina eta Gorbeiaiko garagardoa berezia be ezinbestekoak dira gure gastronomian. Gabonetarako opariren bat erosi gura izan ezker, Gorbeialdeko merkaduetan, bertoko artisauen lanak topau daitezke, kalidadeari, eskuz egindakoaren balioa gehituten deusienak.



Jenteagaz hartu-emonetarako, aisialdia tabernan eta jatetxeetan pasetea sano gustukoa dogu Euskal Herrian. Gorbeialdeko herrietan, etxetik hur, pintxorik tradizionalenak dastatzeko tabernak, horreen aldaerarik modernoenak probetako barrak eta euskal gastronomia dastatzeko jatetxeak daukaguz. Holan, Dimako Garena jatetxean, Zeanuriko Etxegana hoteleko Oneko edo Ellauri hoteleko Kiloterdi jatetxeetan bazkaldu edo afaldu geinke; eta Areatzako The Quiet Corner, Ubideko herriko tabernan, Orozkoko Itxinan, Zeanuriko Txoko Sagarnan eta Zeberio Taberna Zaharran, tragu bat hartu eta pintxo bat jan. Dimako Antzasti Museoak be, euskal produktu tradizionaleko dastaketak antolatuten ditu lantzean behin. Izan be, familia eta lagunaren artean, momentu onak pasetako izateaz gainera, gastronomia, baliabide garrantzitsua da turismo jasagarria Gorbeiaira erakarteko.



### Euskadi Gastronomika

Landa Garapenerako Gorbeialde Alkartea Arratia-Nerbioi inguruko udalek eta landa eremuko beste alkarte batzuek osotuten dabe. Eskualdeko garapen sozioekonomikoa sustatzea da bere helburua, landa eremuko biztanleentzako bizi-baldintzak eta zerbitzuak hobetuz, eta, inplikautako sektore guztiakaz eta toki-administrazioakaz lankidetzan.

Alkartea eta Gorbeialdeko Kuadrillak alkarlanean dabiz 2011tik Gorbeia Euskadiren turismo jomuga izateko eta turismoa erakarteko gastronomiaren garrantziaz jaubetuta, Euskadi Gastronomika kluba sortu zan, produktuen bikaintasuna eta sukaldarien lan ona, Euskadiren bereizgarri diralakoan. Arratiako taberna eta jatetxeak, 2013ean hasi ziran klubean sartzean. Landa Garapenerako Gorbeialde Alkartean, Arabako sei udalerririk dagoz eta Bizkaiko bederatzirik. Udalerririk horreetako sei gure eremukoak dira: Areatza, Artea, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio, hain zuzen be. Otxandio, Orozko eta Urduña dira Gorbeialden dagozan Bizkaiko beste herriak.

**IGORRE****Abenduak 15, barikua**

19:00etan, esku pilota partidua Oinatz Bengoetxea-Imanol Agirre vs Titin III-Mikel Goñi kiroldegian.



Hilaren 20ra arte, 6 eta 13 urte bitarteko umeentzako Gabonetako Kirol Kanpuserako izen-emotea kiroldegian.

**Abenduak 16, zapatua**

19:00etan, Gontzal Mendibil eta Luis Iruarizaga Abesbatzaren kontzertua *San Joan Gurutzekoren poema musikatuak eta bere ibilbide luzeko kantuak*. Zuzendaria: Miren Zubieta. Kantaria: Ainhoa Tabuyo. Musikariak: Angel Unzu, Jose Luis Canal eta Iñaki Dieguez. Lasarte Aretoan.

20:30ean, metal kontzertuak: Herra, Lotura eta Broken Legacy taldeak Kiñu Gaztetxean.

**Abenduak 17, domekea**

10:15ean, Inazio Zubizarreta Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, ibilbide mitologikoa Agarre auzotik abiatuta.

17:00etan, zinea *Bill Kwai: museoaren lapurreta*; 19:30ean, *Los asesinos de la luna* Lasarte Aretoan.

**Abenduak 18, astelehena**

18:00etan eta 19:30ean, (saio bi) Arratiako Musika Eskolearen Gabonetako kontzertua Lasarte Aretoan.

**Abenduak 20, eguaztena**

18:00etan, Ibon Oregi surflariaren berbaldua *Aparretan bizi* Lasarte Aretoan.

**Abenduak 22, barikua**

19:00etatik 21:00etara, Burrumba Elektrotaranga herritik zehar, Kultur Etxetik abiatuta.

**Abenduak 23, zapatua**

Goizez eta arrastiz, Arratia Futbol Taldeak antolatuta, 2015eko umeen arteko Futbol-7 torneoa Urbieta zelaian.

18:00etan, Anita Maravillas konpainiaren *Andereño* umeentzako antzerkia Lasarte Aretoan.

**Abenduak 23, zapatua**

21:00etan, Txopet eta Belako taldeen kontzertuak Kiñu Gaztetxean.

**Abenduak 24, domekea**

12:00etan, badatoz Olentzero eta Mari Domingi! Mikeletik bajatuko dira.

**Abenduak 26, martitzena**

09:00etatik 14:00etara, abenduaren 28ra arte, Gabonetako Kirol Kanpusa 6 eta 13 urte bitartekoentzat (igeriketa, herrikirolak eta multikirola). Eskolako aterpean.

20:15ean, Arratiako Merkatarien Elkarteak antolatuta, Ganso & Cia clown konpainiaren *Babo Royal* antzerkia Lasarte Aretoan. Sei otzara zozketatuko dira.

**Abenduak 28, eguena**

10:00etatik 13:30era, umeentzako tailerrak kiroldegiko frontoian. Gurutze Gorriak antolatuta.

**Abenduak 29, barikua**

10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, Gabonetako Umeen Parkea aterpean eta kiroldegian.

20:00etan, Txalo Produzioak-en *Hobe ixilik!* antzezlanak Lasarte Aretoan.

**Abenduak 30, zapatua**

Pump Track Masterclass, 10:00etan, barriak; 12:00etan, adituak Pump Track-ean.

20:00etan, *Aire!* dokumentala Lasarte Aretoan.

**Abenduak 31, domekea**

11:30ean, San Silbestre lasterketea herrian zehar.

**Urtailak 3, eguaztena**

12:00etan, inaugurazioa, pilo-toak Pump Track-ean.

**Urtailak 4, eguena**

11:00etan, *Kutxak askatu* tailerra Lasarte Aretoan.

**Urtailak 5, barikua**

18:00etan, Erregenetako Kalgatea helduko da Lasarte Aretoan. Gero Erregeak Kultur Etxean egongo dira gutunak hartzeako.

**Urtailak 6, zapatua**

19:30ean, Areatzako Bandaren Gabonetako kontzertua. Atzoko eta gaurko zinema. Lasarte Aretoan.

**Urtailak 7, domekea**

17:00etan, zinea, *Nobitaren dinosauro berria*; 19:30ean, *La Navidad en sus manos* Lasarte Aretoan.

**LEMOA****Abenduak 15, barikua**

20:00etan, Beatriz Egizabalen *Magma mia* bakarriketea Kotxe-

pin Kultur Etxean.

**Abenduak 22, barikua**

18:00etan, Lemoatx Jubiladuen eta pensionisten alkarteak antolatuta, 2023ko bidaia eta osteratxoetako bideo emonaldia, Gabonetako otzarearen zozketea eta txokolatea hurreratzen diranentzat.

19:30ean, Txerokiak taldeagaz kantu-poteoa Herradura tabernatik hasita.

**Abenduak 24, domekea**

10:30ean, Olentzero eta Mari Domingi eguna udaletxeko plazan: gosaria, kantu-kalejireia herri-tik zehar, Olentzero eta Mari Domingigaz argazki saioa Kotxepin Kultur Etxean...

18:00etan, Olentzero eta Mari Domingi Karabie Gaztetxean.

**Abenduak 26, martitzena**

20:00etan, Pintxo Lehiaketea Karabie Gaztetxean.

**Abenduak 27, eguaztena**

19:00etan, Asisko Urmenetaren *Gora Euskal (H)errientsak* liburuaren aurkezpena Karabie Gaztetxean.

**Abenduak 28, eguena**

11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, Gabonetako Haur Parkea kiroldegian.

21:00etan, 1999-2023 asanbladakideen afaria Karabie Gaztetxean.

**Abenduak 29, barikua**

19:00etan, Eneko Gerrikabeitiaren berbaldua *Palestina: elkartasuna zelan bideratu?* Karabie Gaztetxean.

**Abenduak 31, domekea**

12:30ean, Lemoako Gabonetako lasterketea Eneko Zamalloa Memoriala Elizondo auzoan.

**Urtailak 2, martitzena**

19:00etan, Xabier Madariaga Palestinaren zapalkuntzearen lekuko Karabie Gaztetxean.

**Urtailak 3, eguaztena**

18:00etan, *Urpekotzi misterio-tsua* umeentzako ikuskizuna Karabie Gaztetxean.

**Urtailak 5, barikua**

23:00etan, Stankeik-en kontzertua Karabie Gaztetxean.

**UBIDE****Abenduak 17, domekea**

16:00etan, mendira Olentzero eta Mari Domingiri gutuna eroatera; 17:30ean, Antxo ta Pantxaren *Eman bizia* antzezlanak gaztetxean eta ondoren gaztainak eta txokolatea.

**Abenduak 24, domekea**

Olentzero eta Mari Domingiri agurra.

**ZEANURI****Abenduak 20, eguaztena**

15:00etan, Gabonetako eskolako jaialdia Ibarreta frontoian.

**Abenduak 21, eguena**

10:30ean, Gabon kantak herrian zehar, eskolako umeen eskutik.

**Abenduak 24, domekea**

17:00etan, Olentzero eta Mari Domingiren etorrerea, kalejireia herrian zehar.

**Abenduak 25, astelehena**

11:30ean, Zeanuriko Abesbatzak bere 25. urteurrena dala-ta koruan ibilitakoak konbidatzen ditu mezan *Mesias sarritan* kantetan. Andra Mari eleiz parrokan.

**Abenduak 27, eguaztena**

19:00etan, Xabier Urtasun organu-jolearen kontzertua Andra Mari eleiz parrokan.

**Abenduak 28, eguena**

19:00etan, idazle zeanuriztarren liburu aurkezpenak: Anastasia Atutxaren *Sorginaren hil ala biziko sekretua* eta Alvaro Rabelliren *Frantziako Dama*. Arkotxan.

**Abenduak 29, barikua**

BECeko Gabonetako Umeen Parkea egun osoko urtekerea ume eta gazteentzat.

22:00etan, Anje Duhalde abeslariaren kontzertua Ibarreta frontoian.

**Abenduak 30, zapatua**

11:30etik 14:00etara, umeentzako tailerrak Ibarreta frontoian Panpox Kultur Elkartearen eskutik.

18:30ean, herrian zehar kantu-poteoa Zeanuriko Abesbatzaren eskutik 25. urteurrena ospatzeko. Gabon kantak eta herri kantak.

**Abenduak 31, domekea**

11:30ean, San Silbestre lasterketea Joko Alaik antolatuta.

**ZEBERIO****Abenduak 17, domekea**

07:45ean, Zumaia-Deba ibilaldia, plazan.

18:00etan, *Aire!* dokumentala-

ren emonaldia udaletxean.

**Abenduak 18, astelehena**

17:30ean, berbaldua *Cómo salir fortalecido de las situaciones adversas* udaletxean.

**Abenduak 21, eguena**

18:30ean, Arratiako Musika Eskolearen emonaldia Hogarrear.

**Abenduak 22, barikua**

18:00etatik 21:00etara, debalde azoka Hogarrear.

17:00etan, eskupelota partidua frontoian.

19:00etan, ballet ikuskizuna frontoian.

21:30ean, Ruper Ordorikaren kontzertua San Antolin eleizan.

**Abenduak 23, zapatua**

11:30etik 14:00etara, umeentzako eskulanak plazan.

19:00etan, Javier Valdesen kontzertua Ermitabarrin.

**Abenduak 24, domekea**

Olentzeroren etorrerea.

**Abenduak 26, martitzena**

San Esteban. Etxazoko jaiak. 12:00etan, mezea; ondoren, herrikirolak eta barauskarria.

**Abenduak 28, eguena**

16:30ean, *Buruhandi* tailerra eskola zaharreko txokoan.

**Abenduak 29, barikua**

San Tomas zaharra. 12:00etan, mezea, ondoren barauskarria.

20:30ean, The Smoke Dealers-en kontzertua plazan.

**Abenduak 30, zapatua**

18:30ean, Bihotz Gorospereen kontzertua Hogarrear.

**Abenduak 31, domekea**

10:00etan, Tontorrandira urteke-rea plazan.

**Urtailak 3, eguaztena**

17:00etan, ipuin kontalaria udaletxeko 2. solairuko gelan.

**Urtailak 5, barikua**

11:00etatik 14:30era, Gabonetako Umeen Parkea plazan.

# ORTOMOBILITY

Zure mugikortasuna hobetuz  
Bizkaiko esposizio handiena, zu'gandik gertu!

- SALMENTA ETA ESPOSIZIOA
- ZERBITZU TEKNIKOA
- TAILERRA
- ETXERAKO ZERBITZUA
- ADINEKO PERTSONEN ZAINZA ZERBITZUA ETXEAN

*ZORIONAK ETA URTE BARRI ON 2024!!!*

*Gabon zoriontsuak pasa eta datorren urtea, mugikortasunez eta osasunez betea izan dezazuela opa dizuegu.*  
*Ortomobility*

www.ortomobility.com  
info@ortomobility.com  
Mendieta 1 Lemoa - Lemoa  
946 738 203



# IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**  
eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)





*Zazpi Haizetara Euskal Herriko produktuak* 94 631 92 43

Artisautza,  
euskal jantziak,  
bitxiak...

**Gabonetan ez dakizula zer oparitu?**  
Gurean aukera asko topaiko dozuz.  
Otzaren enkarguak hartzean hasita gagoz,  
eskatu zeurea!

📍 Agirre Lehendakaria 11
✉️ [zazpihaizetara.ariatia@gmail.com](mailto:zazpihaizetara.ariatia@gmail.com)

**2024-2029 epealdiko**

# EUSKARA PLANA DISEINATZEKO

**herritarrei zuzendutako galdetegia**

Igorreko Euskararen Plan Estrategiko berria diseinatzeko herritarren ahotsa entzun gura du Igorreko Udalak. Horretarako, galdetegi bat jarriko dute igorretar guztien eskura.

**Galdetegia euskaraz eta gaztelaniaz bete ahal izango da.**

**IGORRE**  
Danon herrira  
Danon bukera

## ETORRI AREATZARA EROSKETAK EGITERA

EROSKETAK  
**%20**  
MERKEAGO

### Azaroaren 27tik otsailaren 3ra

- 1** **EROSI ZEURE BONODENDA 20 EUROTAN GAUZAK DENDAN**
  - Aurkeztutako NAN bakoitzeko gehienez 3 bono erosi ahaliko dira (16 urtetik gorakoek).
  - 600 bono.
- 2** **BONOAK 25 EUROTAN TRUKATU AHAL DITUZU BONODENDA SALTOKIETAN**

BONOA behin bakarrik erabili ahaliko da, hiru gai kontuan hartuta:

  - A) Ordaindu beharreko kopurua 25 euro baino gutxiagokoa bada, ez da dirurik itzulliko.
  - B) Bonoak metatu daitezke.
  - C) Debeekatuta dago bonoen truke dirua jasotzea.

**BONODENDA LEKUAK**  
Aliprox Areatza, Andikoa harategia, Gauzak denda, Arantza Zamalloa farmazia, Areatzako estankoa, Denda Barri. + Ke... PAN okindegia eta Vade retro ile-apaindegia



## ARRATIAKO EGOITZA

Gizarte- eta osasun-arreta jarraitua eta pertsonalizatua

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA

IBARRA AUZOA, 17 DIMA  
94 631 57 76



# begitu **20** urte

## BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

### 2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

**Zorionak eta Urte Barri On**

**ARRATIAKO VDALEN MANKOMUNITATEA**

Elxalde Kalea, 49 / 48140 IGORRE / Tfnoa. 94 631 17 17 / [mankomunitatea.arratia@bizkaia.org](mailto:mankomunitatea.arratia@bizkaia.org) / [www.arratia.eus](http://www.arratia.eus)

Onatzen dituen herri-entzako

**Gure**  
ikastetxeak

**Euskalduna**  
kalidadezkoa

**herrikoa**

<p><b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa</p> <p><b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima</p> <p><b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio</p> <p><b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri</p>	<p><b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 428 78 15 Artea</p> <p><b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 428 79 34 Igorre</p> <p><b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza</p> <p><b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre</p>
---	--

2 urtatu 18a


ZORIONAK

ETA URTE  
**BERRI**  
**ON!**

peaTran  
@irigoyete




649 979 115



inigoirua@begitu.eus

IPINI  
ZURE  
IRAGARKIA  
BEGITUN



*Dana hesi, dana muga,  
hor gosetea, han guda,  
bakerik ezin heldu ba...  
Urte barria heldu da,  
askatasunaren ura,  
zabaldu dadin mundura!*



Zorionak  
eta Urte  
barri on!

**Alkar maite, alkar jagon  
Ez dekon horreri emon  
Falta direnak gogoan aukinde  
ingurukoakaz egon**



**URTE BARRI ON!**



## MENDI LASTERKETAK

## Ubidestroï eta Gorbeia Suzien lasterketen datak jakitera emon dabez

## Erredakzioa

2024ko maiatzaren 11n izango da Ubidestroï Trail mendi lasterketea eta urri lehenengoaren 28an, Gorbeia Suzien. Lasterketa bien ibilbidearen punturik altuena Gorbeia tontorra da (1.482 m), baina urte sasoi desbardineta jokatzen dira, Ubidestroï udabarrarian eta Gorbeia Suzien udagoienean, hain zuzen be.

Ubidestroï mendi lasterketeak 28 km eta 2.000 metroko desnibela daukaz. Gorbeia Suzienek barriz, lasterketa bi izaten ditu: bata 32 kilometro eta 2.400 metroko desnibela daukana eta bestea 21 kilometro eta 1.200



Gorbeia argazkiaren atzekaldean. Argazkia: Escobedo Heart.

metroko desnibelduna. Skyrunner World Series-ek 20 urte beteten ditu 2024an eta 20 proba izango ditu datorren urteko Munduko Ko-

pak, euretako bat izango da, igazlez, Zeanurikoa. Gorbeia Suzien 32Kren ibilbidean dago Gorbeia tontorra.

## ZIKLO-KROSA

## Manu Quintanillak irabazi dauz jokatu dituan ziklo-kroseko atzen hiru lasterketak

## Erredakzioa

Ziklo-kros denporaldiaren erdian, Manu Quintanilla master 50 kategoriako ziklo-krosleri igorretarrak, Lezama, Amezaga Zuia eta Tarazonako ziklo-kros lasterketak irabazi ditu hiru astegoienetan jarraian.

Lezamakoa, zemendiaren 26an jokatu eban Quintanillak eta 00:37:15 denporeagaz nagusitu zan, ibilbidea bigarrenak baino 11 segundo gitxiagotan egin da. Podiuma Xabier Mendiarezek eta Miguel Angel Mateosek osotu eben. Hurrengo astegoienean, Amezaga Zuian be onena izan zan igorretarra, Javier Santos eta Xabier Mendiaren aurretik helmugara helduta. Eta abenduaren 9an jokatu tarazonako nazinoarteko lasterketea be irabazi egin eban.

## Jausialditik errekuerauta

Ziklo-kros denporaldia ez zan ondo hasi Quintanillarentzat. Izan be, denporaldi hasikeran Espainiako Koparako puntuagarria zan Gijoneko lasterketan jausi egin zan eta urri bigarren osoa eta zemen-

diaren zati bat behar izan ebazan erorikotik errekuerauta. Baina oin "jo eta suan" dabil podiumeko mailarik altuenera igoten. Zemen-diaren 12an Zornotzan jokatu tarazonako Bizkaiko Txapelketan be bigarren egin eban.



## FUTBOLA

## Goiko eta erdikaldeko postuetan dagoz Arratiako futbol taldeak

Gizonezkoen Arratia Ak, hilaren 6an, Balmaseda

Aren kontra etxean eta Arratia Bk Begoña Aren

kontra etxetik kanpo, andrazkoen B taldeak

Galdakaoren kontra etxetik kanpo eta Lemoako

Harrobik etxetik kanpo Artibairen kontra, hilaren

6an, lortu ebezan hiru puntuak jokatu atzen

jardunaldian. Andrazkoen Arratia Ak ostera, etxetik

kanpo galdu egin eban.

## Erredakzioa

Gizonezkoen Arratia A taldeak abenduaren 6an jokatu eban etxean Balmaseda A taldearen kontra eta galtzean hasi bazan be 3-1 irabazi eban. Golak Edorta Ormazabal billaroztarrak, Ander Gondra atezainak urrunetik botatuko falta batetik eta Jon Ordeñana zornotzarrak sartu ebezan. Gondra atezainak liga honetan sartzean dauan bigarren gola da eta bitxikeria moduan esan behar da, gol hori Ohorezko Mailan sartzean dan 15.000. gola izan zala. 12 jardunaldien ostean 20 puntu ditu Igorreko taldeak eta bosgarren dago sailkapenean. Datorren partidua hilaren 16an jokatu dau etxetik kanpo Santurtzi A taldearen kontra, arrastiko 18:00etan.

Gizonezkoen Arratia B taldeak hilaren 10ean jokatu eban etxetik kanpo Begoña A taldearen kontra eta 0-1 irabazi eban. Atzen hiru jardunaldietan garaipena lortu dau B taldeak. 12 jardunaldien ostean 18 puntu ditu eta zazpigarren dago sailkapenean. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Atxulaur A taldearen kontra hilaren 16an, arrastiko 17:30ean. Andrazkoen Arratia A taldeak

hilaren 10ean jokatu eban etxetik kanpo Mulier taldearen kontra eta 2-1 galdu eban. Atzen hiru partiduetan puntu bakarra lortu dabe arratiarrek. 13 jardunaldien ostean 18 puntu ditu Arratia Ak eta bederatzigarren dago sailkapenean. Datorren partidua 2024ko lehen astegoienean jokatu dau Urbietan Berriozar taldearen kontra.

Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 10ean jokatu eban etxetik kanpo Galdakao taldearen kontra eta 2-5 irabazi eban. 10 jardunaldien ostean 15 puntu ditu Arratia Bk eta zazpigarren dago sailkapenean. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Arratia Bk Orduña taldearen kontra hilaren 16an, arrastiko 19:45ean.

## Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik be, gizonezkoen Arratia Ak lez, abenduaren 6an jokatu eban. Artibai izan eban aurkari etxetik kanpo eta 1-2 irabazi eban partidua Lemoako taldeak. 12 jardunaldien ostean 17 puntu ditu Lemoako taldeak eta zortzigarren dago sailkapenean. Datorren partidua Arlonagusian jokatu dau Sondika A taldearen kontra hilaren 16an, arrastiko 16:30ean.



## LASTO BOTATZEA

# Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea irabazi dau "Tubi" k hamazazpigarrenez

Mungian jokatu zan abenduaren 6an Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea.



troko markeagaz.

Honegaz Tubik Lasto Botatze-ko Euskal Herriko hamazazpigarren txapela irabazi dau. "Urteari amaiera ona emoteko modua izan da, urte osoan prestatzen egon ostean" azaldu deutso BEGURI txapeladunak.

### Sailkapena

- 1-. Jose Martin Bustinza 6 m.
- 2-. Beñat Obieta 5,30 m.
- 3-. Mikel Agirre 5 m.
- 4-. Jon Loiola 4,80 m.
- 5-. Juan Carlos Lopez 4,60 m.

### Arrapaladan Dimako I. Lasto Jasotze Txapelketea

Abenduaren 23an, 12:30ean, Udalak eta Txabila Herri Kirol Elkarteak antolatuta, Arrapaladan Dimako I. Lasto Jasotze Txapelketea jokatu da. Txapelketea honek, araudi desbardina izango dau, ikuskizuna, azkarragoa eta dina-

mikoagoa izan daiten. Arrapalada txapelketan, Tubik, Jon Loiolak, Unai Ardeok, Beñat Amadek, Oier Gonzalezek, Iñaki Bereauk, Patxi Ituarte, Bingen Erleagak, Xabat Erleagak, Andoni Elizondok eta Eder Lopezek hartuko dabe parte.

Federazioak lasto jasotze txapelketarako ezarritako arautegian oinarrituko dan arren, txapelketea desbardina izango da. Izan be, txandak ez dira minutu bikoak izango; kirolari bakotzak minutu bateko bost txanda egin beharko ditu. Eta probearen azkartasuna eta jarraitutasuna bermatuteko, hiru tripode egongo dira bata bestearen ondoan. Kirolari guztiak hiru tripode horreetatik pasauko dira.

Finalera, 5 txandetan jasoaldi gehien egin dituen hiru onenak sailkatuko dira eta, finalean, beste minutu bateko txanda bi egingo ditue sailkatutakoek. Guztiara jasoaldi gehien egin dituanak irabaziko dau.

### Erredakzioa

Jose Martin Bustinza Tubi kirolari dimoztarrak irabazi eban probea, fardoak 6 metroko langeta pasau ostean. Jon Loiola dimoztarrak laugarren egin eban, 4,80 me-

## PELOTEA

# Hiru arratziar lehiatu dira OneWall-eko Frantziako Openean

### Erredakzioa

Tolosan (Frantzia) jokatu zan abenduaren 2an eta 3an Frantziako Opena eta Rebotean OneWall Klubeko -lehen euskal kluba- hiru arratziar egon ziran jokoan; Aitor Asua eta Lur Ziarrusta dimoztarrak eta Mikel Beldarrain artezarrak. Ziarrustak banakako txapela eskuratu eban, urteko laugarrena.

Banakako txapelketea zapatuan jokatu zan, Ziarrusta eta Beldarrain

maila gorenean eta Asua, B mailan. Beldarrain zein Ziarrusta, beste bost jokalariren kontra jokatu ostean finalerdietara heldu ziran. Biak aurrez aurre, dimoztarrak urten zan garaile joko bietan. Holan, finalean Lóic Clement Europako liderraren kontra egokitu jakon. Ez eban kale egin, joko biak irabazita (15-13 eta 15-09) lortu eban txapela Ziarrustak. Asua oster, C mailako finalerdietara sailkatu zan B mailako ligaxka fasean egindako lanari esker baina

galduta, ez zan finalera heldu.

Binakako txapelketea oster, domekan jokatu zan. Ziarrustak eta Asuak bikote bat osatu eban eta Beldarrainek, Theo Chalimont frantziarra hartu eban bikote lez. Bikote biak heldu ziran finalaurrekoetara baina kanporatuak izan ziran, dimoztarrak belgikarren kontra eta bikote euskaldun-frantziarra ingelesaren kontra. Beraz, bigarren txapel bat eskuratuteko hur egon ziran ROWKeko arratziarrak.

## PELOTEA

# Amaia Aldaik Lau eta Erdiko Master Laboral Kutxa Txapelketako eta Diario Vasco Torneoko finalak jokatuko ditu

Amaia Aldaik, Goiuri Zabaleta izango dau aurkari abenduaren 17an Durangoko Ezkurdi frontoian

(12:00etan, ETB1en) jokatuko dan finalean. Aurreko

egunean Diario Vasco Torneoko finala jokatu dau

Enara Gaminderen kontra.

### Erredakzioa

Aldaik Miriam Arrillagari 22-3 eta Goiuri Zabaletak Leire Garairi 22-19 irabazi ostean sailkatu ziran finalerako. Dimoztarrak, atzen bi urteetako txapelduna da; leitzarrak barriz, 14 urte baino ez ditu eta eskupelotearen etorkizuna bere eskuetan daukala dinoe zaleek.

Goraino beteta egoan hilaren 6an Abadiñoako Matienako pelotalekuan jokatu ziran finalaurrekoak. Markagailuak adierazoten dauan moduan, erraz irabazi eban Aldaik partidua. Sakeagaz 10 tantu egin eutsazan Arrillagari. "Emaitzak esaten dauan moduan partidua nahiko erraz eroan neban, hasikeratik sakeagaz asko asmau neban eta defentsan be lan handia egin neban, berak egindako 3 tantuak oso landuak izan behar izan ziran. Abiadura han-

diegaz mobidu neban pelotea eta aurkariak ezin izan eban ezer egin" adierazo eutsan BEGURI pelotariak.

Aurretik jokatu eban Zabaletak eta Garaik euren partidua. Lehen finalerdia, gogorra eta oso orekatua izan zan. Zabaleta gazteak lortu eban finalerako pasea.

### Diario Vasco

Leire Garairen kontra 22-13 irabazita lortu eban Dimakoak finalera sartzea. Enara Gaminde izango da bere aurkaria.

Hilaren 2an, Tolosan jokatu eban Aldaik Diario Vascon antolatutako torneoaren finalaurreko partidua Leire Garairen kontra eta 22-13 irabazi ostean, sailkatu zan Zumarragan jokatu dan finalerako.

Aldaik, erraz irabazi ebala eta konfidantzaz beteta dagoala adierazo eban.



**TXIN-TXIMINI**

- Tximinien garbi-ikuzia
- Ikuskapena telebista kamarakaz
- Txosten teknika
- Instalazioen erabarritzea eta mantenimentua

Telefona 657 77 94 58  
info@txin-tximini.com  
TXIN-TXIMINI.COM - Bizkaia

**belagorri**

mediku naturista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elikagai biologikoak  
zelakoentzat elikagaiak  
estebizena

Zamako, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

**begitu**  
eus

Bezero eta herritar guztioi jai zoriontsuak opa deusueguz!

**MARRAK**  
paperdenda

## TXOTXONGILOAK

## Andereño txotxongilo ikuskizuna Igorren

## Erredakzioa

Abenduaren 23an *Andereño* txotxongilo ikuskizuna egongo da Igorrenko Lasarte Aretoan, 18:00etan. Anita Maravillasen zarpigarren lana da *Andereño*. Umeentzako eta familientzako ikuskizuna da, irakasle baten eta bere eskola txikiaren istorioa kontetan dauana, maitasunetik eta alkarren zaintzatik eregitako eskolearena. Sarrerak 5 euroan dagoz salgai, bazkideentzat 3,75 euroan.

## Sinopsia

*Andereño* ausarta, trebea eta atsegina da. Gai da ume guztien gaitasunak ikusteko. *Andereño*ok

eta umeek eskola eder bat eregi dabe basoan, animalia guztientzako lekua daukan eskola bat.

*Andereño*ok gehien maite dauan berbea askatasuna da, eta, horregaitik, bere ikasleak askatasunez haztea gura dau. Zoritxarrez, nagusiek gerra bat hasiko dabe, eta, ondorioz, gure protagonistek atzean itxi beharko dabe gogo biziz amestutako eskolea, maitasunetik eta alkarren zaintzatik eregia. Istorio hau libre eta zoriontsu izateko ahalegin zoro eta ederra da. Bertan, *andereño* ausart hareen berbak bildu dira, belarrira honako hau xuxurlatzen deuskuenak: libre izateko lehen baldintza saiatzea da.



## KORRIKA

## Korrika laguntzailea izateko aukerea zabalik dago

## Erredakzioa

*Korrika.eus* webgunean zein Igorrenko Kubulu euskaltegian egin daiteke bazkidezea.

3 hilabete eskas falta dira Harro Herri lelopean egingo dan 23. Korrikari hasikerea emoteko, martiaren 14an hasiko da Irunen eta 24an amaituko da Baionan,

eta AEKk martxan dauka Korrika laguntzailea izateko bazkideza kanpaina. *Korrika.eus* webgunean zein Igorrenko Kubulu euskaltegian egin daiteke izen-emotea eta hamabost euroko kostua dauka. "15 euroren truke, garrantzitsuena lortuko dozu: AEKren euskaltegiei laguntzea" dinoe AEK-koek. Holan, zozketetan parte-hartzeako, ekimenetan lehenetasuna eta deskontuak lortzeako eta etxean Korrikaren buletina jasoteko aukerea emoten da. "23. Korrikak gure hizkuntzearen aldeko konzientzia suspertzea dauka helburu, baina baliabide ekonomikoak biltzea be gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana sustatzeko. Harro gagoz gure hizkuntzaz harro gagoz dogunaz eta garenaz; harrotu gaitzean horrezaz guztiaz" gehitu dabe.



## KONTZERTUA

## Kontzertua emongo dau Gontzal Mendibilek Igorren, Luis Iruarrizaga Abesbatzazagaz



## Erredakzioa

Luis Baraiazarrak euskeratutako eta Gontzal Mendibilek berak musikatuak poemak kantauko ditu Zeanuriko kantautoreak abenduaren 16an, 19:00etan, Igorrenko Lasarte Aretoan. Beragaz, Miren Zubietaren zuzendaritzapean, Luis Iruarrizaga Abesbatzak, Easo abesbatzako Ainhoa

Tabuyo kantariak eta Angel Unzu, Jose Luis Canal eta Iñaki Dieguez musikariek be hartuko dabe parte kontzertuan. Poema musikatu honeek *Neugan bizi gabe biziz* diskoan jasota dagoz.

San Joan Gurutzekoa, Juan de Yepes, hamaseigarren mendean bizi izan zan abade eta poeta mistiko handia da. Andaluzian sortu eta hil zan, eta bere poe-

mak ezagunak izaten jarraituten dabe bost mende beranduago. 2021eko bagilean, Gontzal Mendibilek plazaratu ebazan Euskaltzaindian, Luis Baraiazarrak itzulitako liburua eta 13 kantuz osotutako CDa. Luis Baraiazarrak egindako itzulpena, originalaren metrika eta errima berean eginda dago. "Sekulako lana da. Aurrezdik Lino Akesolok eta Orixek be egin eben itzulpena, baina Baraiazarrarena txapela kentzeakoa da" azaldu deutso Mendibilek BEGITURI. Diskoan, Easo Abesbatzazagaz 8 kantu grabau ebazan eta kontzertuetan herriko edo inguruko koruakaz kantetan dau: Igorren, Luis Iruarrizaga Abesbatzazagaz.

Euskal Herrian, San Joan Gurutzekoa poema musikatu kantetan, 22 kontzertu egin ditu daborduko Zeanurikoak eta beste 2 Euskal Herrikan kanpo; Avilán eta Madrilén, hain zuzen be. Datorren urterako beste lau eskari ditu Mendibilek kontzertu hau Euskal Herrikan kanpo egiteko.

## Luis Iruarrizaga Abesbatza

Luis Iruarrizaga Igorrenko abesbatza 1980an jaiotako da. Harrezkerotik ibilbide luzea egin dau eta hainbat kontzertu emoten ditu urtean urtean, data jakin batzuetan. Gabonetako kontzertua izaten da euretako bat. Oingoan, Gontzal Mendibilek lankidetzan, Juan de Yepesen poemak kantauko ditue.

## KONTZERTUAK

## Belako eta Txopet-en kontzertuak izango dira urteko atzenak Kiñu Gaztetxean

## Erredakzioa

Kiñu Gaztetxean abenduaren 23rako kontzertu bikotxa antolatu da 21:00etatik aurrera. Lehengo Txopet taldea urteko da oholtzara, *Nahiz eta jausi* diskoa aurkeztuten, eta gero Belako, *Sigo Regando* diskoagaz. Talde biak dira post-punk estilokoak. Sarrerak Igorrenko Axular Herriko Tabernan dagoz salgai, zortzi euroan.

Belako 2011n jaiotako musika talde mungiarra da. 2012an Gaztea Maketa Lehiaketea irabazi eta estatu mailako Radio3en, hirugarren postua lortuta hasi eban ibilbidea. Ingelesean eta euskeraz kantetan dabe. Josu Ximun gitarran, Lore Nekane bajuan, Lander Zalakain baterian eta Cris Lizarraga tekladuan dira lau partaideak eta danen ahotsak entzuten dira kontzertuetan. Urte honeetan, lau disko kaleratu ditue: *Eurie* (2013), *Hamen* (2016), *Render Me Numb*, *Trivial Violence* (2018) eta *Sigo Regando* (2023).

Txopet barriz, talde bilbotar jaiobaria da eta atzen edizionoko Gaztea Maketa Lehiaketearen irabazlea izan da. Andoni Barinaga-Rementeria baterian, Iñigo Guemes "Wemes" bajuan eta Jon Fernandez gitarran zein ahotsean dira taldekideak. *Nahiz eta jausi* da taldearen disko bakarra eta hau zuzenean entzuteko aukerea izango da Kiñuko.

## Dimetaleroak Kiñun

Dimetaleroak alkarteak antolatuta, abenduaren 16an kontzertu hirukotxa egongo da Kiñun. *Zazpi* diskoa aurkezteko, Herra metal taldearen birak Igorren egingo dau geldialdia eta honeguz batera, Lotura eta Broken Legacy taldeak egongo dira. Sarrerak alde aurretik tabernetan edo egunean bertan lortu daitezke, sei eurotan.



## MAGIA

### Dimako magia jaialdiak bost egun ditu aurten

#### Erredakzioa

Arratiako magoen ekimenez sortutako Dimagia jaialdia, aurreko urteetako arrakastearen ondoren, sendotuten doa, eta aurten, bost eguneko egitaraua prestatu dabe, abenduaren 12tik 16ra. Egun horreetan, Arratia eta inguruko magoek tailerrak eta magia ikuskizun ugari eskainiko dabez.

Txan magoak Abaroan emondako tailerraren lehenengo saioak zabaldu eban egitaraua. Hurrengo egunean, eskolan egon ziran Run Run Arteako magoa eta Walas Dimakoa, umeen aurrean, magia erakustaldiak egiten. Eguenean, martitzenean hasitako magia tailerreko Txan magoaren ikasleek tailerraren beste saio bat euki eban.

#### Astegoien magikoa

Bariku-zapatuan magia ikuskizun ugari egongo dira Diman. Hasteko barikuan, hilak 15, Txan magoaren tailerrean parte hartutakoek publikoaren aurreko estreinaldia egingo dabe, magia saio bat eskainiz, Abaroa lokalean, 18:00etan. Ondoren, 19:30ean, Txan magoaren txandea izango da.

Hurrengo egunean, 17:00etatik aurrera, umeek kimikari izateko aukera izango dabe, Abaroan egingo dan *Kimikarin* tailerrean eta ostean, 19:00etan, Alain magoak *Ezinezko misterioak* ikuskizuna eskainiko dau udaletxeko pleno aretoan. Frontoi txikian, 17:00etatik aurrera merkadua egongo da. Bertan, bigarren eskuko liburu eta musikea, eta bertako ekoizle eta artisauen lanak erosi ahal izango dira.

## KONTZERTUAK

### Ruper Ordorika eta Anje Duhalde mitikoek, Zeberion eta Zeanurin joko dabe hurrengo hurrengo

Abenduaren 22an joko dau Ordorikak, 21:30ean, Zeberiko San Antolin eleizan eta hilaren 29an, 22:00etan, Zeanuriko frontoian Anje Duhaldek.

#### Erredakzioa

Musikari biak aurrendariak dira euskal rock musikan, eta 40 urte baino gehiago daroet mota guztietako agerleketan euskal musikea jotzen.

Ruper Ordorikak 1980an kaleratu eban bere lehen diskoa *Hautsi da anphora*, Bernardo Atxagaren *Etiopia* liburutik hartutako poemaz osotuta. Ordorikaren musikeak herri kantaren tradizioa eta rocka buztartzen zituan poetika uritar eta moderno batez. Izan be, euskal musikari barrizalea izan da beti Ordorika, hasikera-hasikeratik. Bere bakarkako diskografiak 22 albumek osotuten dabe; *Ez da posible* (1990), *Dabilen harria* (1998), *Azukre koxkorak* (2013) eta *Amour eta toujours* (2021), tartean.

Bakarkako ibilbideagaz batera, Hiru Truku taldea sortu eban 1994an, Bixente Martinez eta Joseba Tapiagaz batera, euskal kantu tradizionalen interpretazi-

no barri bat eskaintzeko.

Kontzerturako sarrerak erosteko atzen eguna hilaren 15a da. 17:00etatik 19:00etara udaletxean erosi ahal dira sarrerak.



#### Anje Duhalde

Anje Duhalde Lapurdiko musikaria 1970eko hamarkadan hasi zan musikan. Baionako antzokian abestu eban jentearen aurrean lehenengo aldiz 1973an eta handik gitxira, Mixel Ducau-

gaz batera, Errobi, lehen euskal rock taldea sortu eban. Talde horretan abeslari eta gitarra-jole ibili zan eta taldea desegin zanean, bakarlari moduan jarraitu dau gaur arte. Akelarre taldeagaz be lau urte ibili zan eta hainbat proiektutan kolaborazioak egin ditu. Hamazazpi diskok osotuten dabe bere bakarkako diskografia. *Goizero* (1975), *Amurizarekin kantari* (1990), *Sorminetan* (2006) eta *Ibilean* (2012) dira horreetako batzuk.



## DUNBA

### Peruko chaufa arroza

#### Arteako 2. zikloko ikasle taldea

Urtero legez, Arteako eskolako ikasleok, gelan landutako proiektu bat aukeratu dogu. Aurten, hainbat gairen artean, sukaldaritzaga gaia landutea adostu dogu.

Gure proiektuaren helburua, familiei errezeta desbardinak dastatzen emotea izango da eta honez gain, egindako errezeta guztiakaz liburuxka bat sortzea. Amaitzeko, eskola osoari eta familiei egindako lan guztia aurkeztuko geunskie.

Hasteko eta praktikaldian egon zan ikasleari agurra emoteko, hiru errezeta prestatu genduzan gelan bertan: frutxetak (fruteagaz egindako brotxetak), fruteagaz egindako minipizzak eta tiramisua.

Ondoren, Peruko ikasle bat etorri zan Arteako eskolara eta sukaldaritzako proiektua landuten



gengozala jakin ebanean, bere herriko errezeta bat egitea proposatu euskun. Bere janaririk gogokoena chaufa arroza da eta Perutik atera zanetik jan barik izan eban eta faltan botaten eban.

Chaufa arroza sukaldatzeko, ikaslearen amari, Aleydari, galdetu geuntsan eta berak gogo onez eta poz-pez onartu eban konbitea.

Zemendiaren 13an, Arteako eskolako jantokian, lanari ekin geuntsan!

Chaufa arrozak, ikasle eta irakasleen artean izan eban arrakastea ikusita, zuokaz partekatzea pentsatu genduzan.

#### Hona hemen errezeta:

##### Osagaiak

- Kilo bat arroz.
- Berakatz ale bi.
- Oilo-bularkia (300 gramo).
- 3-4 arrautza.
- Tipulina sorta bat.
- 3 banana ar.
- Orioa.
- Gatza.
- Jengibre.
- Piper baltza.

#### Zelan egin?

Hasteko, arroza, berakatz ale batez egosiko dogu. Bitartean, bularkia zati txikitant moztu eta berakatz ale batez nahastuko dogu eta bero dagoan orioan prijiduko dogu. Ondoren, arrautzak, bularkia prijidu dogun eltzera botako doguz

eta bularkiaz nahastuko doguz. Piper baltza eta jengibre apur bat be botako doguz.

Bitartean, tipulina sorta zati txikitant moztuta itxiko dogu.

Beste zartagin baten, xaflatan moztutako banana arra prijiduko dogu eta plater baten itxiko dogu.

Amaitzeko, arroza, bularkia eta arrautzak dagozan eltzera botako dogu eta dana ondo nahastuko dogu. Gatza, piper baltz eta jengibre gehiago bota daikegu nahierara. Moztuta itxi dogun tipulina be botako dogu eta dana ondo nahastuko dogu.

Arroza plateran zerbitzatuko dogu eta gainean banana arragaz aurkeztuko dogu. On egin guztioi!



## AGENDEA

**ABENDUAK 15  
ARANTZAZU**

Hilaren 22ra arte, 10 eta 17 urte bitartekoek emon leikie izena, 26an Derioko Jump Yard-era joateko. 5 euro.

**AREATZA**

20:00etan, Feile taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

**ARTEA**

19:00etan, Irakurleen Txokoa. Miren Amurizaren *Basa*. Kultur Etxean.

Hilaren 20ra arte, abenduaren 28an egingo dan Gabonetako Umeen Parkera urtekerarako izen-emotea udaletxean.

**DIMA**

18:00etan, Dimagia. Magia tailerren parte hartutakoen saioa; 19:30ean, Txan magoaren *Magiaz blai* saioa. Abaroan.

18:30ean, Etxean Gure Doguzek antolatuta, "Konponbiderako giltzak", euskal preso eta igeslarien aldeko konzentrazioa, manifestuaren irakurketea, atxikimintuen bilketea eta argazkia plazan.

Urtailaren 31ra arte, Argazki Lehiaketara bialdu daitezke argazkiak [harrera.dima@bizkaia.org](mailto:harrera.dima@bizkaia.org) helbidera.

**IGORRE**

18:00etan, Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak antolatutako *Inguruko altxorak ezagutu ala... suntsitu* Xabier Ramos, Gartzten Martinez, Jasone Aldekoa eta J.A. Mintegiren argazki eta multimedia erakusketearen inaugurazioa Kultur Etxean. Urtilaren 15era arte.

19:00etan, eskupelota partidua Oinatz Bengoetxea-Imanol Agirre vs Titin III-Mikel Goñi kiroldegiko frontoian.

Hilaren 20ra arte, 6 eta 13 urte bitarteko umeentzako Gabonetako Kirol Kanpuserako izen-emotea kiroldegian.

**LEMOA**

20:00etan, Beatriz Egizabalen *Magma mia* umorezko bakarriketea Kotxepinen.

**ZEBERIO**

17:00etatik 19:00etara, Ruper Ordorikaren hilaren 22ko kontzerturako sarreren salmentea udaletxean.

**ABENDUAK 16  
AREATZA**

10:30etik 15:00etara, nekazaritzako elikagaien produktuak eta artisautza azokea plazan (eguraldi txarra egin ezkerreko eskolako aterpean).

11:00etatik 13:00etara, eskola barrizua ikusteko aukerea. Ate irekiak.

20:00etan, Beerllaro garagardaozale alkarteak antolatutako gaztai eta garagardao katea The Quiet Corner tabernan; 22:30ean, Cosmic Bears taldearen kontzertua.

**ARTEA**

19:00etan, *Aire!* dokumentala eleizan.

20:30ean, kontzertua Toketan jakuna Herriko Bentan.

**DIMA**

17:00etan, bigarren eskuko liburu eta musika azokea, bertako ekoizle eta artisauak frontoi txikian; 17:00etan, *Kimikarin* tailerra, ginkana zientifikoa Abaroa aretoan; 19:00etan, Alain magoa *Ezinezko misterioak* ikuskizunagaz. Pleno aretoan.

**IGORRE**

19:00etan, Gontzal Mendibil eta Luis Iruarizaga Abesbatzaren kontzertua. Lasarte Aretoan.

20:30ean, metal kontzertuak: Herra,

Lotura eta Broken Legacy taldeak Kiñu Gaztetxean. Dimetal.

**LEMOA**

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta Turroi Eguna. Ubide-Siskino (854 m)-Ubide. 7 km.

**ZEANURI**

10:00etan, Gorbeia Jubiladu eta Pensinodunen Alkarteak antolatuta, mendi ibilaldia: Plazea-Olaburu-Altxagutxi-Arbina-Urtegia-Plazea. Sagarna portalean.

**ABENDUAK 17  
AREATZA**

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, Gorbeia kurutzera igoera. Izena aurretik emon, [gorbeia.pärke.naturala@bizkaia.eus](mailto:gorbeia.pärke.naturala@bizkaia.eus) helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

09:30ean, eleiz portalean. Turroi eguna. Goiz osoko urtekerea izango da. Ubide-Siskino-Harrikurutzeko koba-Ubide.

**BEDIA**

16:30etik 19:00etara, Bingo Kafea frontoian.

**IGORRE**

10:15ean, Inazio Zubizarreta Eskolako Guraso Alkarteak antolatuta, ibilbide mitologikoa Agarre auzotik abiatuta.

17:00etan, zinea *Bill Kwai: museoaren lapurreta*; 19:30ean, *Los asesinos de la luna* Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

08:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako goizeko jarduerak. Lemoa-Pagotxueta (511 m)-Belatxikieta (661 m)-Burbila (647 m)-Lemoa. 16 km. Eskoletan.

**UBIDE**

16:00etan, mendira Olentzero eta Mari Domingiri gutuna eroaten; 17:30ean, Antxo ta Pantxaren *Eman bizia* antzezlanak gaztetxean eta ondoren gaztainak eta txokolata.

**ZEBERIO**

07:45ean, Zumaia-Deba ibilaldia, plazan.

18:00etan, *Aire!* filma udaletxean.

**ABENDUAK 18  
BEDIA**

17:15etik 19:15era, Gabonetako tailerrak liburutegian.

**IGORRE**

18:00etan eta 19:30etan, Musika Eskolearen Gabonetako kontzertua Lasarte Aretoan.

**ZEBERIO**

17:30ean, berbaldia *Cómo salir fortalecido de las situaciones adversas* udaletxeko bigarren solairuan.

**ABENDUAK 19  
BEDIA**

18:30ean, Arratiako Musika Eskolearen kontzertua eleizan.

**ABENDUAK 20  
ARTEA**

18:00etan, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Contra*

la banalización del feminismo liburuaren lanaketako bigarren saioa Kultur Etxean.

**BEDIA**

17:30ean, Onditz Mendizabalen Liburumaleta ibiltaria liburutegian.

**DIMA**

19:00etan, Nerea Ibarzabalen *Bar Gloria* liburuaren aurkezpena liburutegian.

**IGORRE**

18:00etan, Ibon Oregi surfariaren berbaldia *Aparretan bizi* Lasarte Aretoan.

**ABENDUAK 21  
ARTEA**

19:00etan, Arteko Plan Orokorraren gaineko berbaldia. Zer da HAPO bat? Nola imaginatzen dozu Artea? Kultur Etxean.

**DIMA**

18:00etan, Ane Gebara kontalaria ludotekan.

**ZEANURI**

10:30ean, Gabon kantak herrian zehar, eskolako umeen eskutik.

**ZEBERIO**

18:30ean, Arratiako Musika Eskolearen emonaldia Hogarreen.

**ABENDUAK 22  
BEDIA**

17:30ean, Gabonetako jaiak frontoian. Sarrerea: janari pakete bat personako edo euro bi.

**IGORRE**

19:00-21:00, Burrumba Elektroxaranga herritik zehar, Kultur Etxetik abiatuta.

**LEMOA**

18:00etan, Lemoatx Jubiladuen eta pensionisten alkarteak antolatuta, 2023ko bidaia eta osteratxoetako bideo emonaldia, Gabonetako otzarearen zozketea eta txokolata hurreratzen diranentzat.

19:30ean, Txerokiak taldeagaz kantu-poteoa Herradura tabernatik hasita.

23:00etan, Gilda taldearen kontzertua Karabie Gaztetxean.

**ZEBERIO**

18:00etatik 21:00etara, debalde azokea Hogarreen; 17:00etan, eskupelota partiduak frontoian; 19:00etan, ballet ikuskizuna frontoian; 21:30ean, Ruper Ordorikaren kontzertua San Antolin eleizan.

**ABENDUAK 23  
DIMA**

12:30ean, Arrapaladan, Dimako I. Lasto Jasotze Txapelketea. Frontoian.

**IGORRE**

Goizez eta arrastiz, Arratia Futbol Taldeak antolatuta, 2015eko umeen arteko Futbol-7 torneo Urbietan zelaian.

18:00etan, Anita Maravillas konpainiaren *Andereño* antzerkia Lasarte Aretoan.

21:00etan, Belako eta Txopet taldeen kontzertua Kiñu Gaztetxean.

**ZEBERIO**

11:30etik 14:00etara, eskulanak plazan.

19:00etan, Javier Valdesen kontzertua Ermitabarrin.

**ABENDUAK 24  
ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO**

Olentzero eta Mari Domingi herrietan. Ikusi programak 10. eta 12. orrialdeetan.

**ABENDUAK 25  
LEMOA**

Ganzabalek antolatuta, Anbotora urtekerea.

**ZEANURI**

11:30ean, Zeanuriko Abesbatzak bere 25. urteurrena dala-ta koruan ibilitakoak konbidatzen ditu mezan Mesias sarritan kantetan. Andra Mari eleiz parrokiak.

**ABENDUAK 26  
ARANTZAZU**

10:00etan, 10 eta 17 urte bitartekoentzako Derioko Jump Yard-era urtekerea.

**AREATZA**

18:00etan, grafiti erakusketea Laminetxe Gaztetxean.

**IGORRE**

09:00etatik 14:00etara, abenduaren 28ra arte, Gabonetako Kirol Kanpua 6 eta 13 urte bitartekoentzat (igeriketa, herri-kirolak eta multikirola). Eskolako aterpean.

**LEMOA**

20:00etan, Pintxo Lehiaketea Karabie Gaztetxean.

**ZEBERIO**

San Esteban. Etxazoko jaiak. 12:00etan, mezea, ostean herri-kirolak eta barauskarria.

**ABENDUAK 27  
ARANTZAZU**

Ludotekeagaz, HH4 eta LH2 bitartekoentzat Alluitz Naturara urtekerea.

**AREATZA**

18:00etan, zumba tailerra Laminetxe Gaztetxean.

**LEMOA**

19:00etan, Asisko Urmenetaren *Gora Euskal (H)erriensak* liburuaren aurkezpena Karabie Gaztetxean.

**ZEANURI**

19:00etan, Xabier Urtasun organu-jolearen kontzertua Andra Mari eleiz parrokiak.

**ABENDUAK 28  
AREATZA**

17:00etan, umeentzako pelikulea *Kiriku eta sorgina* eta fruta jana Laminetxe Gaztetxean.

19:00etan, *Aire!* dokumentala udaletxean.

**ARTEA**

10:00etatik 18:00etara, 2011 eta 2018 bitartean jaiotakoek urtekerea GUPera.

18:30ean, Pituxa clownu kontari Herriko Bentan.

**IGORRE**

10:00etatik 13:30era, umeentzako tailerrak kiroldegiko frontoian.

**LEMOA**

11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, GUP kiroldegian.

21:00etan, 1999-2023 asanbladakideen afaria Karabie Gaztetxean.

**ZEANURI**

19:00etan, idazle zeanuriztarren liburu aurkezpenak: Anastasia Atutxaren *Sorginaren hil ala biziko sekretua* eta Alvaro Rabelliren *Frantziako Dama*. Arkotxan.

**ZEBERIO**

16:30ean, *Buruhandi* tailerra eskola zaharreko txokoa.

**ABENDUAK 29  
AREATZA**

19:00etan, mikro irekia Laminetxe Gaztetxean.

**ARTEA**

10:30ean, sukaldaritzako agroekologikoko tailerra *Sukaldea kolektibizatzen: elikadura burujabetza feminizarantz*.

Barazki betetako piperrak prestatuko dira bertan. Izena emon 94 627 89 07 telefonoan edo Herriko Bentan. Prezioa, bazkideak 30 euro, ez bazkideak 35 euro. 5. piperretik gora, 1,20 euro/piper.

Herriko Bentan.

**BEDIA**

10:00etan, Bilboko GUPera urtekerea.

**IGORRE**

10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, GUP aterpean eta kiroldegian.

**LEMOA**

19:00etan, Eneko Gerrikabeitiaren berbaldia *Palestina: elkartasuna zelan bideratu?* Karabie Gaztetxean.

**ZEANURI**

BECEko Gabonetako Umeen Parkera egun osoko urtekerea ume eta gazteentzat.

22:00etan, Anje Duhalde abeslariaren kontzertua Ibarreta frontoian.

**ZEBERIO**

San Tomas zaharra. 12:00etan, mezea, ondoren barauskarria.

20:30ean, The Smoke Dealers-en kontzertua plazan.

**ABENDUAK 30  
AREATZA**

19:30ean, Bandaren Gabonetako kontzertua eleizan. Atzoko eta gaurko zinema.

**ARTEA**

Gabonetako Umeen Parkera urtekerea 2006 eta 2010 bitartean jaiotakoak.

**DIMA**

19:00etan, *Tortolara arte, andra lodi baten egunerokoa* eskolako kamaran Ana Goitiagaz.

**IGORRE**

Pump Track Masterclass, 10:00etan, barriak; 12:00etan, adituak Pump Track-ean.

20:00etan, *Aire!* filma Lasarte Aretoan.

**ZEANURI**

11:30etik 14:00etara, umeentzako tailerrak Ibarreta frontoian Panpox Kultur Elkartearen eskutik.

18:30ean, herrian zehar kantu-poteoa Zeanuriko Abesbatzaren eskutik 25. urteurrena ospatzeko. Gabon kantak eta herri kantak.

**ZEBERIO**

18:30ean, Bihotz Gorosperen kontzertua Hogarreen.

**ZEBERIO**

18:30ean, Bihotz Gorosperen kontzertua Hogarreen.

**ZEBERIO**

18:30ean, Bihotz Gorosperen kontzertua Hogarreen.

**ABENDUAK 31  
AREATZA**

11:00etan, argazkia eta bideoa Urrekoatxan. 09:30ean, eleiz portalean igoten ez dakienez.

17:30ean, II. San Silbestrea plazan hasita.

**ARTEA**

Gabon Zahar jaiak 01:00etatik aurrera. 1980-1990 hamarkadetako musika eta mozorroak Herriko Bentan.

**IGORRE**

11:30etan, San Silbestrea herrian zehar.

**LEMOA**

12:30ean, Lemoako Gabonetako lasterketea Eneko Zamalloa Memoriala Elizondon.

18:30ean, Sarek antolatuta, "Konponbiderako giltzak", euskal preso eta igeslarien aldeko ekimena Plaza Gorrian.

**ZEBERIO**

10:00etan, Tontorrandira urtekerea plazan.

# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

#### LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarri auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

#### BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m<sup>2</sup>) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

#### TXOKORAKO MAHAIK SALTZEAN DIRA

Mahaien neurriak: 2,80 metro luzeerea, 90 cm zabalera eta 8,50 cm lodiera. Prezioa: 300 euro. Eserlekua, 2,80 eta 3 metrokoak, 50 euro bakoak. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

#### ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeerea, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua.

Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

### LANA

#### GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

#### FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Arratiako Ziklista Elkarteak emondako materiala.

Ibon Ozerin (Igorre)  
Pedro Ormazabal (Areatza)



**2** Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Bilboko finalerako sarrera bi.

Iratxe Olabarri (Igorre)



**begitu**

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel: 94 631 73 65 - VILLARO

**NAIARA** Hartz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**BIZARGINAK**  
BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA  
94 607 78 33  
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

**GORBEIALDE**  
LANDA GARAPENA  
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**begitu**  
eus

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
609-79-40-54

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Sabino Arana, 24  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
zikutezikuteza@hotmail.com

**begitu**  
eus

# OPARI BONUAK

— 2023 —

OPARITU ONDOIZATEA

*Sartu gure webgunean, aukeratu  
opari bonua, inprimidu eta listo!*

ZIRKUITU  
TERMALAK

MASAJEAK

BIKOTE-KAPRITXOAK

ERRITUAL NATURALAK

EGONALDIAK

HOTELEAN

HIDROTERAPIA

ESTETIKA & KOSMETIKA

*18€tik aurrera*

[hotelbalnearioareatza.com](http://hotelbalnearioareatza.com)

[hotelbalneariorduna.com](http://hotelbalneariorduna.com)

